



ADGIA

DANIEL LANDART, KULTURGILEA

***“Militante izpirituan egon
behar dugu, zenbaitetan
ahantzten dugu hori”***

42-49. orrialdeak

#2.872 | 2024 / 05 / 26 | 4,00 €



**BBVA, Sabadell
eta banku-
kontzentrazioaren
gaitza Europan**

12 | EKONOMIA



**Cristina Rivera
Pulitzer saria,
bere ahizparen
feminizidioaz**

16 | ELKARRIZKETA



LARRUN #296

**Nola eutsi euskarari
kulturarteko harremanak
oztopatu gabe**

LARRUN #296



ekainak 2
Ordizia!

publikoa aI do!

Euskal Eskola
Publikoaren 31. jaia!

Antolatzailea

ehige 

Laguntzailea

 ARGIA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: GARI GARAIALDE

Iritziak

- 21 | MIKEL ZURBANO
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | INMA ERREA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | ITZIAR MORENO

Finkoak

- 30 | GORPUTZ HOTSAK
- 34 | BIZI BARATZEA
- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



MODEI TORRES

16 | CRISTINA RIVERAK BERE AHIZPAREN FEMINIZIDIOAZ IDATZI DU

Lilianaren uda garaiezina liburuak Pulitzer saria jaso berri du. Danele Sarriugartek elkarriketatu du egilea eta mintzatu da feminizidioaz, doluaz, justiziaz, mendeku motez, erritualez... eta literaturaz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Bankuak gose: nork gizentzen du piztia?

Urko Apaolaza

26 | NAZIOARTEA

Palestina, maite zaitugu, aske

Mikel Zuloaga, "Mikelon"

28 | NAZIOARTEA

Hauxe da Gaza suntsitzeko Israelen eta AE Ben plana

Jonathan Cook

32 | EKONOMIA | OLATUKOOPEK 10 URTE

Konpromisoa eta festa bat eginda, lurraldeak eraldatzeko

Urko Apaolaza eta Jenofa Berhokoirigoin

40 | KULTURA

Oparo dator 5. Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azoka

Estitxu Eizagirre

42 | KULTURA | DANIEL LANDART

"poeta naizen? poesia sentimenduak dira, besteek erantzun beharko diote horri"

Jenofa Berhokoirigoin

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GIUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitara
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBUURDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Kolonialismoaren ABDa

Parisetik 17.000 kilometro ingurura dago Kanaky herria, Australiatik gertu, baina lege eta nazionalista frantziarren begietara kanakak Macron eta Le Pen bezain frantziarrak dira, 1853tik armen indarrez hala inposatu zutenetik. Kanakak, baina, borrokaren bitartez, erreferendumak egiteko eskubidea eskuratu dutenez, Parisetik nola egin aurre independentzia nahiari? Bada, kolonialismoaren oinarriaren bitartez: bozkatzeko eskubidea duten kolono kopurua ugalduta. Horixe erabaki du Frantziako Asanblada Nazionalak eta sumina eragin Pazifikoko artxipelagoan. Kolonialismoa historia edo iraganeko kontu gisa azaldu nahi digute, baina mentalitate eta antolaketa koloniala bizi-bizirik dago, formak aldatuta ere.



ETAren desarmea lagundu zuten bakegileak errudun jo ditu Parisko auzitegiak, baina zigorrik gabe

ERREDAKZIOA

Hobengabetzea eskatzen zuten bakegileek, baina Parisko Zigor Auzitegiak errudun jo ditu Jean Noël Etcheverryi *Txetx* eta Beatrice Molle Luhusoko armagabetzean parte hartu zuten *bakegileak*. Hala ere, ez dute zigorrik izango.

Parisko Zigor Auzitegiak ostegun eguerdian eman du bakearen artisauen auziaren epaia, eta errudun jo ditu. Epaketan zehar, prokuradoreak, Jean Noël Etcheverry *Txetx* eta Beatrice Molleren-tzat "zigor errukigarriak" eskatu zituen. Hala, lehen informazioen arabera, bi bakegileek ez dute zigorrik izango.

Defentsak hobengabetzea eskatu zuen auzi-saioetan, baita Bake Bideak ere: "Uste dugu hobengabetze batek bakarrik emango liokeela benetako zentzua Luhusoko ekintza historikoari", azaldu zuten. Etcheverryk berak zioen, zigor batek bakegileek egindako lanaren memoria zinkitzea ekarriko lukeela.

Baina epaimahaiak prokuradoreen iritzia egin dio kasu, nahiz eta apirilaren 2an eta 3an egindako saioetan tes-

**Ezinbesteko da "epaitegieta-
erabakietatik harago aitzina egitea" bake
"justu eta iraunkor" baten markoan
kokatzeko**

tigantzek argi eta garbi utzi bakegileen lana "epaitu beharrean, bakegileek gure aitortza merezi" dutela.

Nolanahi ere, bakegileak pozik agertu dira epaiarekin: "Errudun jo gaitu, baina zigorrak bertan behera utzi du kondena, gure helburua ez baitzen arma horiek beste delitu batzuetarako erabiliak izatea, horiek neutralizatzea baizik, Euskal Herriko bake prozesua bultzatzeko", esan du Etcheverryk. Hala, *Berriako* kazetari Ekhi Erremundegik informatu duenez, ez dute helegiterik jarriko.

Xantiana Cachenaute defentsako abokatuetako batek ere, *Kazeta.eus*-i azaldu dio ontzat ematen dutela epaia, "errekonozimendu" bat ere badelako beraien iritziz.

Bake Bideak-en esanetan, "erne" egongo dira datozen hamar egunetan Terrorismoaren Aurkako Fiskaltzak helegitea jartzen ote dion epaiari eta dei egin dio ministerio publikoari, "zentzuan jardun dezan eta ez dezan helegiterik aurkeztu".

Mugimenduak ohar bidez adierazi du ezinbesteko dela "epaitegieta-erabakietatik harago aitzina egitea" bake "justu eta iraunkor" baten markoan kokatzeko. Horretarako baina, agintari politikoaren eta gizarte zibilaren inplikazioa beharrezkoak direla iritzi du Bake Bideak.

Etcheverry eta Molleren aldeko agiria sinatu zuten 5.000 pertsonak. Horien artean ziren Frantziako Gobernu-ko zortzi ministro ohi, 35 parlamentari eta Euskal Herriko arduradun politiko ugari ere. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Ihes egin



UXUE APAOLAZA LARREA

Azken aldi luzean ezin naiz gauez atera, eta arratsalde ere larri, eta asteburuetan ere ez, eta (jarri zaizue jada ihes egiteko gogo), mariani-toak eta bazkari azkar samarrak izaten dira nire enkontruneak. Konpainiak ondoegi aukeratu behar ditut. Ezin ditut poteoak inprobisatu, Aner Peritz eta Maialen Akizurekin egingo nukeena, kasu, mozkor, nire señoia jarioaz aspertzeko. Barkatuko didate maternalismoa (barkatu), baina nik barra batean imajinatu dut hau, eta barra batean andre bati uzten zaio zenbait dibagazio maternalista, idatziz, agian, xelebreagoak direnak).

Biek adierazi dute, Peritzek lehenengo, Akizuk, katean, ihes egiteko gogo (eta eten dezagun katea, bestela, suizidio nota batean agertzeko arriskua dugu). Eta lehen kolpean, bai, bai, egin ihes, ez pentsatu, pentsatu dut. Nik ere badut gogo, beti izan dut... Itxoin, itxoin... ez, aiba, pentsatzen jarrita, ez daukat ihes egiteko gogorik (parkean ez banago). Zahartu egin naiz. Eta onerako. Eta Kavafisen hiri hura aipatzeko adina dut. Adina dut esateko beti iristen garela hiri berera, hiri hori barnean daramagulako. Baina, agian, hobe da ondorio horretara iristea, beste hiriren batean. Orain ihes egin nahi ez badut, noizbait egin nuelako izango baita. Adinaren arabera hori ere; Peritz eta Akizuri bizitza birika handiagoz arnasteko gogo antzematen baitiet (bejondeizuela), nire adinetik gorakoei gaizki kudeatutako iraganak (suizidio noten sukalde). Akizuk, hala ere, ñabartzen zuen amaieran, ihes egiteko gogo hori dela, ez norabait joatekoa, alde egitekoa bakarrik. Eta ihes egin daiteke turismoa egiteko, edo bidera berriro ez itzultzeko, edo desbideratzeko guztiz. Eta horrek prezioa du. Ni oraindik zigor izugarri baten zain nago, eta jaso ditut batzuk; ez nuke jakingo, barran mozkorturik, zer gomendatu.

Desbideratuz gero, betirako izango dela zaila, eta ez beti ederra. Baina bizirik zaudela. Eta ederra denean, gainera, batzuetan, bakarka dela, hiria zu zeu zarela, zeu hiri oso bat, eraiki baduzu (eta dibortzioak eta pandemiak ez dira amildegi izango). Eta opari hori zeuk egin diozu zeure buruari. Animatzen bazarete, gogoratu hortzen arteko odola garbitzen duzuen hurrengoan. Kalkulatu hurrengo kolperako behar duzuen denbora, ea gero eta gehiago den, edo gero eta gutxiago. Eta, batez ere, eduki inguruan ni bezalako señoia noizean behin folklorika, noizean behin ama, noizean behin... bat, Martiniak odola garbitu, eta bazterretan guatekeak egiteko. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

EUSKAL MITOLOGIako IZAKIA:
MARRAZKILARIA

IZAERA: IZAKI GAUTIARRA.

EZ DA ARRISKUTSUA BAINA MAIZ GOGAIKARRIA
SUERTA DAITEKE.HABITATA: TABERNETAKO KOMUNETAN ZEIN MENDIKO
BORDETAN AURKI DAITEZKE BERE ARRASTOAK.AKABERA: ADIMEN ARTIFIZIALEKO
KORPORAZIO HANDIEK, MARRAZKILARIAK
SORTUTAKO EDUKIEN BAIMENAK,
KREDITUAK ETA EGILETZA ESKUBIDEAK
LAPURTU ETA MONETIZATZEAN
DESAGERTU ZEN.

ADUR

Azpiegitura
handiak

Donostiako Udalak *El Diario Vasconi* filtratu dionez, ez dute olatu artifizialen surf parkerik eraikiko Antondegi mendian. Berriak sorpresa eta poza eragin du inguruetan eta honen aurka ari ziren eragile ekologistetan, orain arte EAJ eta PSE-EE sendo ari baitziren igerileku erraldoi honen alde lanean.

Euskara

2023an, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak balio gabe utzi zuen Uliazpi Fundazioko 34 zaintzaileren lan deialdirako euskara eskakizuna. Fundazioko langile batzordeak eta Foru Aldundiak sententzia salatu zuten eta Aldundiak jarritako helegitea ez du tramitera ere onartu Auzitegi Gorenak.

Sexualitatea

LGTBifobiaren aurkako egunean, maiatzaren 17an, mobilizazio ugari egin dituzte Euskal Herrian barrena. LGBTI komunitateak ohartarazi du haien aurkako delitu gorrotoak goraka doazela, lehenik jarrera edo ahotsezkoak, eta ondoren eraso fisikoetaraino.

Desokupa saiatu da etxe bat ilegalki husten

IRUTXULOKO HITZA / ARGIA

Maiatzaren 10ean, 20:00ak aldera, Desokupa44 enpresaren izenean identifikatu ziren bi gizon Donostiako Egiako Karmengo Ama kalean okupatuta dagoen etxe batera joan ziren, eta bertan bizitzen zeuden gazteak mehatxatu zituzten.

Atearen beste aldean egon ziren mehatxu, irain eta “gezurrak” esaten, bertan bizi ziren gazteek hala adierazita: “Irain homofoboak eta sexistak izan ziren, eta argia eta ura moztuko zigutela esan zuten”. 20:30ean, bi gizonak alde egin zuten, baina mehatxu batekin: “Ordubetea 30 kide itzuliko gara, eta bihurtu aurrera, sarreraren kontrola jarriko dugu, joaten zareten arte”.

Okupen deialdiari erantzunda, 20:30etik aurrera etxea defendatzera joan ziren 40 bat auzokide eta “Desokupa kanpora” pankarta zabaldu zuten.

Etxea ezaguna da auzoan, jabeak, beren beregi, egoera prekarioan mantentzen duelako: infra-etxebizitzak, dozena erdi etxe huts eta baldintza tamalak ditu. Igogailuak bi urte daramatza hondatuta, eta behar bereziak dituen emakume batek ezin du ateratu ere egin. Egia Bizirik Auzo Elkartek urteak daramatza jabearen jarrera salatzen eta soluzioak eskatzen.

BORTXA ETA ESKUIN MUTURRA

Desokupa enpresak desalojo estrajudizialak egiten ditu, legezkotasunaren mugetan eta bortxaz jardunez, eta ezaugarriak kideek eskuin muturrekin duten lotura. Enpresak egoitza nagusia Bartzelonan duen arren, zerbitzuak eskaintzen dituzte Espainiako Estatu guztian. “Ilegalki okupatuta dauden edo maizter prekarioak dituzten etxebizitzak etxegabetzeetan berezitatuko enpresa gara. Berehalako etxegabetzeen formula legezkotasun sortzaile eta aitzindaria”, diote beren webgunean. Darabilten indarkeria ageriko egin da hainbat alditan; 2018an adibidez, Katalunian, etxetik kaleratu zutenean abortua eragin ziotela salatu zuen emakume batek. ●

ANALISIA



MAURICIO TONETTO / SECOM

Ezohikoak dira euri-jasak?

LEIRE ARTOLA ARIN

Udako egun eguzkitsua noiz iritsiko zain daude euskal herritar ugari. “Ez da ohikoa maiatzean horrelako eguraldia egitea”, diote batzuek; “garai batean halakoa zen”, besteek. Lazkaoko eta Mauleko herritarrek ez dakite klima aldaketari zer egotzi eta zer ez, baina harrituta utzi ditu maiatzaren 19ko udaberriko euri erauntsi handiak. Nola ulertu atmosferako fenomenoak? Zer da ohikoa eta zer ez? Jasandako kalteen errua lainoei bota ezinda, jendeak agintariengana jotzen du, ardura eurei dagokiela gogoraraziz.

“Ezohiko” denborale puntualak direla diote agintariak, eta kalteak gertakari isolatu gisa kalkulatu dituzte. Ordea, argi geratzen ari da herrialde ugari ari direla hondamendi natural larriak pairatzen. Albistegietako lehen lerroak hartzen ari dira, eta eguraldiari buruzko igogailuko hitz aspertua kezka iturri da orain.

Gurean oihartzunik apenas izan badu ere, Brasilgo Hegoaldeko Rio Grande estatua urak hartuta dago apirilaren amaieraz geroztik. Euri-jasa etengabeak eta uholde izugarriak daude, eta estatua erabat suntsituta dago: 618.000 pertsonak baino gehiagok galdu dute etxea ur azpian, eta ehunka herritar ur, argindar eta elikagai eskasia daukate. Gutxienez 154 hildako eta 98 desagertu daudela diote agintarien azken datuek, baina jakina da zifra handituko dela, hilabeteak beharko baitituzte “ezohiko” hondamendi horren ondorioei aurre egiteko. Lula da Silva presidenteak zera ohartarazi du: “Munduarentzako abisua dira uholdeak. Kontuan izan behar dugu Lurra ordaina eskatzen ari zaigula”. Hegoaldeko Rio Granden zortzi hilabetea hiru bider izan dituzte uholdeak, herritarrei ohikoa zaie.

Karibeko biztanleak ere gero eta ohituago daude urakanen denboraldian arduratuta bizitzera; maiatzerako etxea ur eta kontserbaz betetzen ari dira, ekainean hasi eta azaroan amaitzen baita urakan denboraldia, eta aurtengoak gogor joko diela iragarri dute meteorologia agentziek. Ipar Atlantikoan, Mexikoko Golkoan eta Karibe itsasoan sortzen dira zikloiak hilabete horietan, baina 2024an “oso aktiboa” izango da denboraldia: aurreikusi dutenez, hoguei bat zikloi tropikal sortuko dira, eta horietatik hamaika bihurtu litezke urakan. Kopuru handia da hori, baina ohiko bilakatzen ari dena, besteak beste, itsasoko gainazalaren tenperatura nabarmen igo delako. Horrek eragiten du zikloiek indarra hartu eta urakanak arriskutsuagoak izatea, Inmet Meteorologia Institutuak Habanako egoitzatik ohartarazi duenez.

Ez dirudi egoera baretuko denik. Munduko Meteorologia Erakundearen maiatzeko txostenaren arabera, 2023. urtea inoizko beroena izan zen Latinoamerikan eta Kariben, 1991-2020 arteko batezbestekoa baino 0,82 gradu beroagoa. Eredu horietan bizitzea gero eta arriskutsuagoa bilakatzen ari da, eta herritarrak nahiz adituak exijitzen ari dira prebentzioan jartzeko indarra eta baliabideak. “Ezohiko” hondamendiak kudeatzeko protokoloak zaharkituta daude; berehalakoan protokolo errealistagoak jarri ezean, herritarrek hiltzen jarraituko dute, “naturako faktoreen eraginez”. ●

3

infekzio detektatzen dira Nafarroan eguneko, sexu bidez transmitituak. Iaz 1.343 infekzio erregistratu ziren, duela zazpi urteko zifrak laukoiztu dira.

Adituen arabera "arriskuaren pertzepzioa galtzen ari da" eta hartara prebentzio neurri gutxiago hartzen dira.

10

egunez, aisialdi orduetan telebista, bideo-joko eta smartphoneak alboratuko dituzte gutxienez 1.553 ikaslek, Ipar Euskal Herrian.

Pantailarik gabeko alternatibak diseinatu dituzte aisialdirako.

%26

Nafarren %26ak euskararen ezagutza mailaren bat dauka eta 20 udalerrian euskaldunen proportzioa %80tik gorakoa da, Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera.

"Berrikuntzak frantsesaren eskutik heldu badira, zaila izanen da geroan euskaraz bizitzea"

MATTIN IRIGOIEN

Zabalik elkarteko kidea.

EUSKAL IRRATIAK (2024-05-15)



"BERRESKURATU DITZAGUN EUSKARAZKO TELEBISTAREN SORRERAKO ANBIZIO ETA ASMOAK"

ALDATU GIDOIA

Kulturan eta ikus-entzunezkoetan euskararen aldeko politikak eta bitartekoak exijitu ditu mugimenduak.

2024-05-18

"Ama edo aita perfektua izan nahiak estresa, antsietatea eta erruduntasun sentimendua eragiten ditu, eta seme-alaba perfektua izan nahiak ito egiten ditu"



AEBetako Ohioko unibertsitateak argitaratu duen ikerketak dio heziketa perfektuaren ideiak akituta dituela guraso asko.

ARGIA.EUS (2024-05-15)

Zortzigarren polizia infiltratua

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Juancar izenez infiltratuta egon da Carlos P.M. agentea Madrilgo hainbat mugimendutan, bi urtez. 2020an sartu zen Espainiako Polizian, hain justu ere infiltrazio kasu gehiagoren jatorrian dagoen zentro berean egon ondoren. *El Salto*-k argitaratu du informazioa.

Andaluzian jaiotako gazte bat zen Juan-car, Madrilera joandakoa Lanbide Heziketako aire girotuaren mantenuko gradu bat ikastera. Bere osabak utzitako pisu batean hartu zuen bizileku, Moratalaz auzoan. Andaluziakoa izanik, inor ez omen zuen ezagutzen Madrilen, eta berak esaten zuen kitzikatzen ziola hiriburura joateak eta mugimendu sozialek indarra duten auzoetan integratzeak.

Istorio hori kontatu zien auzoko mugimendu sozialetako militanteei. Baina gezurra zen. Carlos P.M. zuen izena eta 2020ko ekainean lizentziatu zen Espainiako Polizian.

Integratu zen mugimendu sozialerako zenbait militanterekin hitz egin du *El Salto*-k, eta esaten dute "lotsati tankera" zeukala, inorekin gatazkarik ez zuela sortu eta jendeari ondo erortzeko faboreak egiten zituela. "Beti zegoen prest lanerako", kontatzen du kide batek. Mantenu arloko formakuntza amaitu eta enpresa batean lanean hasi zela zioen, eta enpresako furgonetaren argazkiak igo zituen Juancarren Instagram kontura. Baina militanteei "arraroa" egiten zitzaizkien zenbaite-tan lanaldiak ez baldintzatzea militantziarako denbora eta prestutasuna; edozein egunetan eta edozein orduetan zerbait egin behar bazen, prest zegoela esaten zuen. Gerora, Carlos P.M.-ren Instagram kontua aurkitu dute militantzia kideek. Bere etxera zenbait bidoi urez betetzera joan ziren egunak ere susmoak piztu zituen. Berez, ordurako, berak kontatzen zenez, urtebete baino gehiago bazeraman bertan bizitzen, baina txorrotza zabaldu eta ura marroi kolorekoa irten zen.

2022ko ekainetik hona, *Directa*-k eta *El Salto*-k argitara atera duten polizia infiltratuen zortzigarren kasua da. Lehena, Kataluniako independentismoan eta etxebizitzaren mugimenduan atzeman zuen *La Directa*-k. 2023ko urtariletik aurrera, erreskadan etorri dira. ●

NAZIOARTEA



Gose greban hil da Thai-landiako monarkiaren aurkako preso bat

LANDER ARBELAITZ

Netiporn Sanesangkhom thailandiarra gaztaroan hainbat gai sozial eta politikoren alde borrokatzen hasi zen. Esaterako, ikasle thailandiarrek orrazkera aukeratzeko eskubidearen alde, baita herrialdeko LGBT komunitatearen alde ere. Erreforma demokratikoaren eta askatasunaren aldeko borrokak izan zuen, ordea, bere bizitzan eraginik handiena eta horretan buru-belarri ari den Thaluwang taldean sartu zen gazte.

Thailandiako errege Maha Vajiralongkorn eta bere hurbileko familia munduko legerik zorrotzenetakoe-k babesten dute, eta horrek estatuari ematen dio disidentzia, monarkiarekiko kritikak barne, zigortzeko bote-rea. Sanesangkhom, besteak beste, herri galdeketa eta erregearen pribilegioen aurkako manifestazioak antolatu zituela dio Wikipediak. Jokabide horregatik hainbat aldiz salatu eta espetxeratu zuten. 2022an ere gose greba egin zuen justizia sistemaz eta preso politikoen baldintzen inguruan alarma jotzeko.

Azken aldiz 2024ko urtarrilaren 26an atxilotu zuten. Espetxeratu zutenean, Sanesangkhom berriro gose greba abiatu zuen monarkiaren aurkako ekintzaileek pairatzen zituzten epaiketak gabeko atxiloaldiak salatze-ko, Al Jazeera-k jaso duenez. Bihotz-geldialdi baten ondorioz hil da 2024ko maiatzaren 14an, 110 egune-ra. 28 urte zituen.

2020an monarkiaren aurkako protestak hasi zirenetik, 270 ekintzaile thailandiar zigortu dituzte erregearen aurkako difamazioa egotzita. Horrez gain, beste 2.000 pertsona baino gehiago auzipetu dituzte beste kargu batzuekin, gobernuaren aurkako protestetan parte hartzeagatik.

Thailandiako justizia sistemak monarkiaren kritikoak hainbat hilabetez espetxean epaiketak gabe preso edukitzea ahalbidetzen du, eta monarkiarekiko difamazioagatik zigortuz gero, hamarkada bat gainditzen duten espetxe zigorak ezartzen ditu.

IKASLEEN BORROKAREN HISTORIA MONARKIAREN AURKA

Sanesangkhomen gose grebak nazioartean lerro-buru batzuk eskuratu badi-tu ere, ez da oso ezaguna Europar Thai-landiako ikasle mugimenduaren historia, Red.Mediak oroitarazi duenez.

Ikasleek gidatutako monarkiaren aurkako mugimenduak 1970eko hamarkadan jo zuen goia. Gerra Hotz betean eta komunismoaren aurkako propagandak berotuta, gobernuak errepresio latza erabili zuen mugimendu hura suntsitzeko.

Gobernuaren eraso muturrera iritsi zen 1976ko Thammasat-eko sarraskian. Thai-landiako Poliziak, eskuin muturreko paramilitarrekin batera, Thammasat unibertsitatean protestan ari ziren 100 ikasletik gora hil zituen. ●

"Torturak ama eta alabarengan sorturiko zauria arintzen lagundu du dokumentalak"

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ



Une hunkigarriak izan zituen ekitaldiak. Iratxe Sorzabalek telefonoz deitu zion amari, ekitaldi erdian. Kima Arzuaga eta Jon Mikel Fernandezek lore sorta bat oparitu zioten Mari Nieves Diaz Iratxe Sorzabalen amari, ekitaldi bukaeran.

Torturatu zuten Iratxe Sorzabal preso eta haren ama ditu protagonista *Bi arnas* dokumentalak. Duela bi urte abiatutako prozesua ixteko ekitaldia egin dute eta bide horretan lortutako etekin ekonomikoak bi elkarteri eman dizkiote: Harrera eta Axut! Ekitaldiak une hunkigarriak izan ditu eta Sorzabalek berak telefonoz amari deitu dionean, bertan zeudenen txalo zaparrada jaso du zuzenean.

Proiektuak egin duen ibilbide arrakastatsua ospatzeko, eskerrak emateko eta diru kontuak garrantzitasunez azaltzeko ekitaldia egin dute Hondarribiko Muara kultur elkarteak, maiatzaren 17an. Jende lepo zen elkarteak. Jaime Altunak egin ditu aurkezpen lanak eta Urbil Artolaren abes- tiek goxatu dute momentua. *Bi arnas* dokumentalaren trailerrak ireki du ekitaldia: Iratxe Sorzabalen eta bere ama Mari Nieves Diazen arteko harremana da kontakizunaren ardatza. Preso irundarraren kasua abiapuntua da tortura zabalago jorratzeko.

Jon Mikel Fernandez zuzendari eta gidoilaria izan da hitza hartzen lehena. Prozesu ederra eta aberasgarria izan dela nabarmendu du, baina une gogorak ere izan dituenak, ezinbestean, "landu dugun historia ez baita nolanahikoa: tortura, errepresio sexista, amatasuna... Zalantza asko izan nituen buruan, nire rola inguruan-eta, baina Kima eta Iratxeri eta haien konfiantzari esker egin nuen aurrea". Ondoren etorri ziren estreinaldi arrakastatsua Irunen, Donostiako Zinemaldirako hautatu izana eta dokumentalaren ibilbide oparoa. "*Bi arnas*ek zuen helburua lortu du, torturaren errealtatea zabaltzea, eta horrez gain, torturak ama eta alabarengan sortu duen zauria sendatzen ez,

baina arintzen lagundu du. Iratxek duela urtebeteko bixitan esan zigun dokumentalak ere lagundu diola torturaren trauma gaitzitzen, eta hori gauza handia da". Ama eta alabaren eskuzabaltasuna eskertu du Fernandezek, haien zauri pertsonala erakutsi dutelako, eta horrek dar-dar egin duelako ikus-entzule askoren barruan, euren sentitu dute ikusitakoa. "Torturaren kontrako borroka arnas luzeko borroka da eta hau urrats bat gehiago da. Harro eta pozik nago egindakoarekin".

Dokumentaleko protagonistak entzun ditugu segidan, bideo eta audio bidez. Mari Nieves Diazek kontatu du zerbait txikia eta lagunartekoa aurreikusi zuela hasieran, eta apur bat gaitzitu sentitu dela proiektuak hartu duen dimentsioarekin, "baina torturen afera kalera atera beharra zegoen, nire alabaren aurretik beste kasu asko egon dira eta batzuk bidean geratu dira". Proiektuaren atzean aritu direnei eskerrak eman eta hau ez dela hemen bukatzen azpimarratu nahi izan du: "Kartzelan jarraitzen duen jende horretaz guztiaz gogoratu, haien maitasuna eta gaztaroa eman dutelako Euskal Herriaren alde; gogora itzazue beti, mesedez; niretzat, barruan dauden guztiak nire seme-alabak dira".

AITORTZA TORTURATUEN AMEI: "AHAZTU HANDIAK"

Iratxe Sorzabalek aipatu du inportantea dela torturari aurpegiak eta ahotsak jarritzea, errealtate hori jendarteratzeko, sensibilizatzeko eta salatzen. Helburu horiek lortu direla adierazi du, Bi arnasen hedapena ikusita. "Tortura ez da iraganeko kontua, oraindik ehun pertsonatik gora gaude torturaren ondorioak pairatzen. Presoak

etxeratzen orduek, eta lan kolektiboa da hori". Eta azken hitzak amari eskaini nahi izan dizkio, torturatu eta errepresaliatu guztien amei: "Ahaztu handiak. Aitortza zuei, zuri. Muxu handi bat denei".

Bat-batean, telefonoak jo du aretoan, Mari Nieves Diazen mugikorra da, hartu eta ozen esan du: "Bera da, Iratxe da". Txalo zaparrada entzun du Sorzabalek, telefonoaren beste aldetik. Besarkada bat bidali du hark, bueltan.

Kima Arzuaga ekoizle eta proiektuaren sortzaileak datuak eman ditu: 110 emanaldi inguru egin ditu dokumentalak, gehienak Euskal Herrian. Proiektua aurrera ateratzeko crowdfunding-a abiatu zuten, eta dokumentala egiteko baliatu dituzten 20.000 euroetatik gehiena norbanakoen ekarpenak izan dira. Hara non emanaldiak azkenean etekin ekonomikoa ekarri duten. "Zer egin diru horrekin? Argi dugu guretzat ez dela izango -azaldu du Arzuagak-, guk kobratu dugu dagoeneko, ez dirutan, esperientzia baizik; eta pentsatu dugu irabazien kopuru handiena Harrera elkarteari ematea". Espetxetik atera berri direnei laguntzen eta sostengua ematen egiten du lan Harrerak. Horrez gain, diru kopuru txikiago bat bideratu dute Axut! kolektibora, Fuchs anaien antzerki taldera, "politikoki eta sozialki egiten duten lan handiagatik".

Mari Nieves Diazek lore sorta jaso du bukaeran, ekoizlearen eta zuzendariaren eskutik, eta Urbil Artolak gitarra astindu du. Ostean, jaten, edaten eta solasten segitzeko parada nahi beste luzatu da, ospatzekoa baita xume jaio zen burutazio hark hartu duen indarra eta utziko duen arrastoa. ●

BANKUAK GOSE: NORK GIZENTZEN DU PIZTIA?

BBVAk Sabadell irensteko egin duen eskaintza “oldakorrak” berriz erakutsi digu egungo bankuak nolako azalez eginda dauden. BlackRock eta antzeko inbertsio funts sarraskijaleen atzaparretan erorita, haientzako haratustelak ehizatzen dabiltzan erakunde lotsabakoak ditugu aspaldi. Baina dena ez da akziodunen erruz, politikaren goi mailetan hartzen diren erabakiek ere badute zerikusirik: Europako Banku Zentralak banku-kontzentrazioa bultzatu du haboroz haboro.

 URKO APAOLAZA AVILA

BBVAK Sabadellen kontrola eskuratzeko egindako Erosketa Eskaintza Publikoak (EPP) harrabotsa sortu du, duen dimentsio ekonomiko eta politikoagatik. Espainiako Estatuko bigarren banku handiena bihurtuko litzateke BBVA, soilik Santander bankuaren atzetik, eta Europako hamar banku handien *top*-ean kokatuko litzateke. Heda-bide nagusiak samaldan irten dira *opa hostil* (EPP oldakorra) delako horren ondorioak aztertzeraz –enpresako zuzendariaren oniritziarik gabe akziodunei zuzenean salerosketa proposatzea–, eta eskuak burura eraman dituzte, herritarren hipotekak eta enpresen kredituak gorbatadun gutxi batzuek maneiaturiko litzaketelako.

Baina bankuen kontzentrazioa ez da zerutik San Pedrok bidalitako zerbaite; 2008ko krisiaz geroztik Europan gizen-tzen ari diren piztia bat da.

BBVAk aspaldi jaso zituen hegoak Bilbao eta Vizcayatik Madrilgo eta nazioarteko negozio hobi zabalagoetara, apenas egoitza soziala utzita gure lurretan, Neguriko *euskal* erroen testigantza sinboliko moduan. Sabadellen kasuan, 2017ko urriaren 1eko erreferendumak bultzatuta aldatu zuen egoitza soziala Alacantera –bide batez, burtsan %6 irabazi zuen–, baina herrialde katalanetako enpresek lotura estuagoa omen du, eta horrek bihurtu du pelikula honetako biktima txintxo, bidean jan dituen harrapakinak askoz gutxiago ez diren arren.

Euskal Herrian BBVAren oldarraldiak izan duen oihartzunak ez du zerikusirik Herrialde Katalanetako hedabideek gaiari eman dioten arretarekin. Ez da erraza jakitea zergatik iragarri zuen BBVAk Sabadell erosteko asmoa Katalunia-ko hauteskunde bezperetan, baina horrek operazioaren inguruko esamesak hauspotu ditu, eta alderdi, patronal zein gobernu oro bere kontra jarri du.

Vilaweben irakur dezakegu Vicent Partal zuzendariaren editorial gogor bat. Sabadellen buru Josep Oliuren kezak “krokodilo malko zinikoak” direla dio Partalek –erreferendumarekin izandako jarrera akordura ekarrita– eta harriturik dago, Juntsetik PP-raino, banku alacantarra babesteko zabaldu den diskurtso homogeneoarekin.

**EBZren erantzuna *mutis*
handi bat izan da. Zer
gehiago espero zitekeen
banku erraldoien sorrera
eta fusioak “pozez”
txalotzen dituen erakunde
batekiko?**

Egunkari digital berean, Jordi Goulak, *La Vanguardia*-n esperientzia handia izan duen kazetari beterano eta ekonomialariak, *El BBVA treu l'artilleria pesant* (BBVAk artilleria astuna atera du) izenburu belikoa duen analisisa publikatu du: “Garbi dago finantza munduan inflexio puntu bat dela”, onartu du, baina ez du batere klaru BBVAk kontuak azti egin dituenik “pilota akziodunen teilatuan” utzita. Sabadelleko akzioen %90 *free float* dira finantzen jergan, hau da, ez daude kontrolatuta –nahiz eta asko BlackRock, Vanguard, Norges eta antzekoen esku dauden–, eta inork ez daki hartzaeren besarkada *free loving* potolo bat jasotzeko prest diren akziodun horiek, balore-merkaturian lau sos irabazteko.

ERNE, ARRISKU SISTEMIKOA

Sabadellen erosketak sortuko lukeen banku-kontzentrazioak ez ditu ezustean harrapatu batzuk. Joan Ramón Sanchís da horietako bat, Valentziako Unibertsitateko Guztien Ongizaterako Ekonomia-aren katedrako zuzendari izandakoa eta finantza erakundearen inguruko hamaika liburu kritiko idatzitakoa, tartean Viejo Topok argitaraturiko *¿Es posible un mundo sin bancos?* (Posible al da bankurik gabeko mundu bat?).


Sanchísek urteak daramatza gertatzen ari den bankuen fusio eta gizentze prozesuaren arrisku sozialez ohartarazten. Youtubeko *Parlem d'Economia* bere kanelean, etxeko logelan grabaturiko zor-



BBVAko 2023ko batzar nagusian KEM-MOC talde antimilitaristako ekintzaile baten protesta Bilbon, bankuak urtero izaten dituen etekinak salatzeko.

tzi minutuko bideoan argiro laburbiltzen ditu, kaletar xumeontzat, BBVA eta Sabadellen arteko bateratzeak eragingo lituzkeen kalteak: “Aspertuta nago, guztiz aspertuta, zeren eta urte askoan hitz egin dut banku handien fusioek izan ditzaketen ondorio larriez –kexu da ekonomialaria–. Denbora luzez bankuen fusioak egin dira, eta horrek eragin oso negatiboak izan ditu, esaterako bezeroei abusuak ekarri dizkie, baina inor ez da kontra agertu”. Kuriosoa egin zaio orain BBVAk Sabadelli egindako EPPk sorturiko larritasuna.

Fusioek bankuen arteko lehia gutxitzen dutela dio Sanchísek, baina batez ere horrek sortzen duen “arisku sistemi-koak” jarri behar gaitu erne: “Bankua hain handia bihurtzen da, krisi bat gertatzen denean ezin dela erortzen utzi eta diru publikoa injektatu behar zaiola”. 2008an gertatu zen bezalaxe. Orduan, estatuak zor



TOP 10 Europako banku handienek bilioi-dunak dira jadanik eta kapitala metatzen segitzen dute. BBVAk Sabadelli erosiz gero, "klub" horretan sartuko litzateke.

URKO AROLAZA / ARGIA

Kontzentrazioarekin kredituen eta hipoteken baldintzak gogortzen dituzte bankuek. Nora garamatza horrek? Hitz bakarrean ez, baina hirutan esanda: komisioak, abusuak, iruzurra

publikoa handitzen du “obligazioa” omen duelako bankuen galerak finantzatzeko –erran nahi baita sozializatzeko–, eta noski, zerbitzu publikoak mantentzeko zen diru guztia irensten du piztiaren ahoak.

Herritarrei eragin diezaiekeen beste kontu bat sukurtsalen duplizitatea da. Bankuetako lantaldearen “berregitura-tzea” eta antzeko eufemismoen atzean zer dagoen ere oso ongi ikasi baikenuen 2008ko krisiarekin, baina badaezpada Sanchísek gogorarazi digu: “Bulegoak itxi eta lanpostuak suntsitzea”.

Gainera, kontzentrazioak bankuen boterea handitzen du: “Beraien negoziazio ahalmena handitzen da bezeroaren aurrean, eta hala, finantza bazterkeria erabili dezakete”, dio. Enpresa txikiek zailtasun handiagoak dituzte kredituak lortzeko, eta familientzako hipoteken eta abarren baldintzak ere asko gogortzen dituzte bankuek. Nora garamatza horrek? Hitz bakarrean ez, baina hirutan esanda: komisioak, abusuak, iruzurra.

TXIZA EGITEN TXAPELDUNAK

Carlos Cuerpo Ekonomia ministro espainiarrak Bruselara bidaiatu zuen, BBVAk Sabadellen kontrako EEPa jaurti eta bihar munetan. Banku-kontzentrazioak Espainiako Gobernuari sortzen dizkion “kekak” azaldu dizkio ministroak Europako Banku Zentraleko (EBZ) ikuskatzaileen buruari. Ez dirudi herritarraren hipotekak edo kutzazain-bulegoko langilearen kondizioek loa galarazten diotenik, kalkulu politikoek bainoago.

EBZren erantzuna *mutis* handi bat izan. Zer gehiago espero zitekeen banku erraldoien sorrerak pozik txalotzen dituen erakunde batekiko? EBZko arautzaile teknokraten ustez, krisi bat aguantatzeko adina kaudimen izan behar dute bankuek.

Frankfurtek urteak daramatza banke-teen bateratzeak bultzatzen –eta mugaz gaindikoak badira hobe–, “europar txapeldunak” sortzeko bidean. Finantzetan, energian, telekomunikazioan, baita mikrotxipak sortzeko mega-lantegietan ere,



BRUSELAN Eurotaldeko ekonomia ministroak, maiatzaren 14ko bilkuran. Han izan zen ere EBZko arduradun Clara Buch. Agintariak urteak daramatzate “txapeldun europarrak” sustatzen.

BANKU PUBLIKOENGANDIK IKASTEN: BANK OF NORTH DAKOTA

Beste alternatiba batzuk badaudela aldarrikatzen dute zor bidegabekoa abolitzeko sare herritarrek edo finantza etikoen inguruko elkarteek. Ez gara hemen hasiko finantza zerbitzu kooperatiba eraldatzailerik bat zer den azaltzen, horretarako irakurleak nahikoa luke Koop57ri buruzko ARGIAren kanalerara sartzeari. Banku etikoak ere badaude, gurean Fiare eta La Nef dira ezagunenak.


Baina seguruenik, banku publikoak dira historia luzeena eta esperientzia handiena dutenak –Euskal Herrian aurrezki kutxak ziren gisan, banku-fundazio bilakatu eta kontrol soziopolitikorik gabeko patronatuaren esku utzi zituzten arte–. Europar eta mundu zabalean banku publikoen eredu asko daude, eta adibide bitxiak dolarren paradisuak aurkitu dezakegu, AEBen *Midwest*-ean, Ipar Dakotan.

1919an nekazari mugimendu zabal batek sortua, Bank of North Dakota AEBetako populismoan du jatorria –populismoa ezkerreko aldarrikapena zen garaian–, Thomas Frank historialariak *Jacobin*-eko elkarrikerak batean azaldu duen gisan. AEBetako aldizkari ezkerreko horretan bertan aurkitu dugu bankuaren historiari buruzko informazio xehea dakarren beste artikulu bat, Michael Lansing-ek idatzia:

North Dakota has the country's oldest Public Bank. We should look to it as a model (North Dakotak herrialdeko banku publiko zaharrena du. Eredu bezala hartu beharko genuke)

Lansingek dio bankua sortu zela zerealekin zeuden praktika predatzaileei jatorri ugaritako nekazari migratzaileek emandako erantzun gisa. Garia Minneapolisera bidali eta bueltan apenas zetorkien ezer. NPL (Liga ez Alderdikoa) izeneko plataformak sortu zuten lehenik, eta hortik botere gehiago lortu eta enpresa handiekiko alternatiba publikoak eraikitzen hasi ziren: estatuaren jabetzako ale igogailu bat, irin-errota bat... eta bankua. Ipar Dakotakoa ez zen lehen estatu-bankua izan, “baina jendea finantza zerbitzuak emateko behetik goranzko mugimendu batetik sorturiko halako erakunde batek bide berriak ireki zituen”, dio *Jacobin*-eko artikulugileak.

1929ko krakean, nekazariak milioika dolarreko kredituekin lagundu zituen Bank of North Dakotak. Bigarren Mundu Gerraren ostean estatuaren funtsak hornitu zituen, geroago, milaka ikasleri mailegu merkeak eman zituzten unibertsitateak joan zitezkeen, eta 1980ko hamarkadako nekazal krisian, tokiko garapenerako proiektu ugari babestu zituen.



Ipar Dakota AEBetako estatu aberatsetako bat da egun, eta hein handi batean banku publikoak zerikusia du horrekin. Baina dena ez da lausengua: Ipar Dakota errepublikarren gotorleku bihurtu da eta banku publikoak norabide kezkarria hartu duela dio Lansingek. Esaterako, Standing Rockeko *Dakota Access* oliobidearen kontrako protestetan, jatorrizko herriak zapaltzeko urdurtasunak maileguak eman zituzten agintariei, poliziak eta mertzenarioak ordaintzeko dirua eduki zezaten. Kontuz beraz, ez daigun piztia ardi narraz moztortuta etxera sartzen utzi.

idea bera da: munduko potentziek in parez pare lehiazteko, Europar Batasunak alimaleko korporazioak behar ditu. Txiza zeinek urrunago egin.

Espainia dago banku-kontzentrazioaren gurdia abangoardian –2008an 55 banku zeuden estatu osoan, hamabost

urte geroago, 9 besterik ez–, eta atzetik doaz gehiago ere. Frantziako Estatuak, adibidez, BNP eta Société Générale erraldoien arteko ezkontzari buruzko zurrumurruak ez dira isildu. Munduko 100 banku handien artean 37 kontinente honetan daude.

Azken finantza krisian, mundu mailako *too big to fail* fenomenoak (handiegia erortzen uzteko) aurretik eraman zituen herritarren aurrezkiak eta diru-kutxa publikoetako azken zentimoak. Baina agintariei ez dute, ez kuantu, kataklismo horretatik irakaspen askorik ateratu. ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Cristina Rivera Garza

HILDAKOEKIN IDAZTEA

“

ZERBAIT GERTATZEN DA MUNDUAN KOLEKTIBOKI ESATEN DUGUNEAN NORBAIT FALTA ZAIGULA

”

Bilbora etorri zen apirilean, idazketa sendatzaileei buruzko hitzaldi bat ematera, EHUko Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan masterrak gonbidatuta. Bazuen zer esanik: soziologia eta historia ikasitakoa, artxiboa baliatzen du idazteko, eta bere ahizparen bizitza eta feminizidioa kontatu ditu *El invencible verano de Liliana* [Lilianaren uda garaiezina] liburuan. Pulitzer saria jaso bezperatan, argi dauka literaturak ez duela sendatzen: justizia-modu bat izan daiteke, ordea.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

Behin baino gehiagotan entzuna dizut 30 urte behar izan dituzula Lilianaren feminizidioari buruz idazteko. Zer faktorek eragin dute *El invencible verano de Liliana*-ren idazketan?

Pertsonalki 30 urte behar izan ditut nire dolu-prozesua egiteko, baina beti nabarmentzen dut gizarteak ere beste horrenbeste urte behar izan dituela era honetako historiak beste modu batean kontatu ahal izateko. Horretaz aparte, hainbat puntu daude. Liburu bat ez da behin jaiotzen, behin eta berriro ari da jaiotzen. Alde batetik, LAS-

TESIS taldearen performancea entzun nuen [*Bortxatzailea zu zara*], eta ulertu nuen jada bageneukala hizkuntza bat honi buruz hitz egiteko, eta bazegoela beste entzumen-ahalmen bat ere, hala-koak beste modu batean har zitzakeena. Pandemiako larritasunak ere izan zuen eraginik: bat-batean hilko ginelako sentazio hori. Hainbat faktore tarteko, ikusi nuen prest nengoela liburu hau idazteko, eta bazegoela inguru bat ere liburu besarkatzeko prest, eta nolabait ere behar-beharrezkoa zela hau idaztea, denoi dagokigun elkarrizketa bat zabal-tzen segitzeko.

Zer-nolako harrera izan du?

Ez nuen espero Lilianak halako harrera eskuzabala jasoko zuenik. Gaur egungo belaunaldi berriekin artikulatu da hainbat modutan: ez soilik genero-indarkeriari lotutako kezkei dagokienez –hain etengabea hirietan, espazio publikoan, espazio pribatuan–, ezpada norbere askatasuna kemenez babesteari dagokienez ere. Halaber, badago halako elkar ulerkera bat: gazteek ikusten dute oso garrantzitsua dela aske izatea gure munduak esploratzeko. Asko harritu nau, bestalde, estimuak. Ez da soilik izan interes politikoa, interes so-



Cristina Rivera Garza

TAMAULIPAS, MEXIKO, 1964



Idazlea eta ikertzailea. Gaur egun sormen-idazketako irakaslea da Houston-eko Unibertsitatean (AEB). Hainbat liburu idatzi ditu, genero askotan. Elkarriketan aipatutakoez aparte, beste bat gomendatuko dugu hemen: *Los muertos indóciles. Necroescritura y desapropiación* [Hildako menderakaitzak: nekroidazketa eta desjabetzea] (Consonni, 2021). Hainbat sari jaso ditu: iaz Gutun Zuria jaialdiarena, Bilbon, eta, aurtun, Pulitzer sari sonatua.

ziala. Lilianak estimu handia jaso du, eta orain askoz anaia-arreba gehiago dauzka munduan. Atsegin ematen dit horrek.

Minak hor segitzen du, baina dolua ez da hain bakartia orain?

Doluak segitzen du. Maiz aipatzen dut Alice Notley poeta estatubatuarra; hark esaten du literaturak ez duela sendatzen. Baina liburu hau gai izan da dolu pribatu hori –indarrez isildua, gizarteak ezarritako lotsaren eta erruaren pean lurperatua— dolu lagundu bihurtzeko, dolu kolektibo eta are kolaboratibo bihurtzeko. Horrek ez du arindurik ekarri, arindua justiziaren eskutik etorri beharko litza-tekeela uste dut, eta justizia legalari dagokionez behintzat, ez da halakorik izan. Ustezko feminizida libre dago, ez dute inoiz epaitu, hura atxilotzeko aginduak indarrean segitzen du. Orduan justiziaren zati hori ez da bete, baina beste justizia, memoriari eta egiari dagokiona, lantzen ari gara, eta praktika horietatik dator beste dolu-modu hau. Liliana Rivera Garzaren izena hor kanpoan dago, etengabe dei egiten diote eta badakigu ez zela homizidioa izan, feminizidioa baizik. Badakigu feminizida bat izan zela, ez hiltzaile bat soilik. Termino zehatz horiek ekartzea eta historia hau beste era batean kontatzea bada justizia-modu bat. Hiztegi hori oso garrantzitsua da. Niri axola zait, nire gurasoei –nagusituak honezkero– asko axola zaie. Ez da huskeria bat. Pasiozko krimenaren narratiba patriarkalek inposatutako isiltasunaren guztiz bestelakoa da Liliana honela oroitzea.

Idazle ezaguna zara, liburu honek hainbat sari jaso ditu, asko mugitu da... Mexikoko justiziaren partetik ez da erantzunik izan?

Mexikon liburua aurkezten hasi ginean, argitaletxearekin batera email helbide bat zabaldu genuen, inork ezer jakinez gero tipoari buruz, hara idazteko. Eta mezu asko iritsi zitzaizkidan: hainbat emakumek idatzi zitaten, harekin egonak zirela eta abusuak jasan zituztela, eta hileta baten esteka ere iritsi zitzaidan, pandemian

egiten ziren hileta digital horietako bat. Ustezko feminizidaren argazkiak agertzen ziren, haurtzarotik heriotzara artekoak, eta esteka horretan zioen 2020ko maiatzaren 2an hil omen zela Mitchell Angelo Giovanni –ustez izen hori erabili zuen AEBetara ihes egin zuenetik–.

Feminizidioa jasan duten emakume askoren senideek bezala, neure kabuz ikertu behar izan dut, oraindik borondate gutxi baitago Mexikoko justiziaren aldetik halako gaietan sartzeko. Detektibe estatubatuar bat kontratatu nuen eta hark egiaztatu zuen egia zela Mitchell Angelo Giovanni izeneko gizon bat 2020ko maiatzaren 2an hil zela, itota, Kaliforniako hegoaldean. Baina orain egiaztatu behar dena da ea Mitchell Angelo Giovanni benetan ote den Ángel González



“Berariaz erabaki nuen ahizparen argazkia jartzea liburuaren azalean: feminizida bizi baldin bada, ikus dezala, aurre egin diezaiola”

Ramos, eta Mexikoko justiziak egin behar du hori. Dokumentazio guztia daukate, nire testigantzak daukate, den-dena daukate eta ez dute ezer txo ere egin. Pentsa, kasu honetan liburu bat dago, Bilbon ere ari gara gaiari buruz hitz egiten, eta ez dute ezer egin: zer gertatuko da orduan beste kasuekin, elkarriketarik ez liburutik ez dagoen kasuekin? Ba beste behin ere argi geratzen da nolako zigorgabetasuna dagoen, eta nola zigorgabetasun horrek halako krimenak are gehiago ahalbidetzen dituen.

Atzoko hitzaldian mendekuari buruz galdetu zizuten.

Emozio konplexua da oso, konplikatu, eta maiz galarazita izaten dugu emakumeok batez ere. Mendekua aipatzen dudanean, Annie Ernaux idazleak Nobel Saria jasotzeko hitzaldian aipatzen zuen zentzuan aipatzen dut: esaten zuen bera idazten hasi zela berretarreatatik mendeku hartzeko...

Bere klasekoengatik.

Horixe. Eta, nik ulertu nuen eran behintzat, horrek esan nahi zuen eztabaida publikoan lekuri izan ez duten historiak kontatzea. Hala ulertu nuen mendekua, ez beste kluxe ipar amerikar horren zentzuan, pistola hartu eta jendea hil, baizik eta Lilianaren historia hartzearen eta espazio

publikoan artikulatzearen zentzuan, haren izena gure bizitzetara ekartzearen zentzuan. Eta berariaz erabaki nuen haren argazkia jartzea liburuaren azalean, haren aurpegia, besteak beste honako hau nahi nuelako: feminizida bizi baldin bada, ikus dezala, aurre egin diezaio- la. Eta nire mezua, orduan bezala orain, hauxe da: Liliana indartsuagoa dela feminizida baino, Lilianak bizirik iraungo duela bera hil ostean ere, Lilianaren izena oroituko duela jendeak eta tipoa ahanzturan ustelduko dela, bere senide koldarren babespean, bizi ere hala bizi izan baitzen, bere amak eta ahizpak babestuta, bere lagun koldarrek babestuta, ihes egiten lagundu baitzioten, justiziarren aurrean agertu ordez.

Beraz, amorru handia dago, amorru guztiz zilegia: dena erre behar dela esatera eramaten gaituen amorru berbera. Ederki ulertzen dut amorru hori, hezurren muinean ulertzen dut. Eta zilegi iruditzen zait, orobat, honako hau esatea: Lilianaren bizitzak eta historiak, tipo hark zanutu eta ezabatu nahi izan zuen bizitza horrek, hain zuzen, hemen irauten duela, eta tipoak baino askoz luzeago iraungo duela gainera. Horretan badago indarra, elkartasuna. Mendekuaren alderdi hori interesatzen zait.

Liliana bizi-bizirik agertzen da liburuan. Bere idatziak daude, bere lagunen testigantzak... Indar handia du horrek.

Genero-indarkeriako kasuak edo indarkeria-kasuak gertatzen direnean, zenbait gauza izaten dira: lehenik, ezabatu egiten da gertaera, baita gaur egun ere, halako historiak jasotzeko inguru eta mintzaira askoz egokiagoak dauzkagun arren. Beste batzuetan, halako gertaerak zenbakiak izaten dira, estatistikak, eta hori ere ezabaketa-modu bat da. Azkenik, gerta daiteke gehiegi nabarmentzea heriotza, edo heriotza bihurtzea guztia- ren ardatza, eta era horretan ahaztu eta ezabatu egiten da ezen heriotza bortitz horien atzean bizitza konplexu, aberats eta alaiak egon zirela.

Liburuan asko interesatzen zitzaidan Lilianaren heriotzaz mintzatzea, heriotza hori ekarri zuten faktore sozialak, pertsonalak, etab. aztertzea, baina, batez ere, haren bizitza ekarri nahi nuen, zeren, nire ustez, galdu ditugun emakume guztien bizitzak kontatzen baditugu, haien falta izango dugu, eta ikusten badugu zer leku utzi zituzten hutsik gu bizi garen espazioetan, ezberdina izango



da, ez da izango haiek etengabe inbisibilizatzea bezala. Badago zerbait *longing* horretan, ingelesez esaten zaion moduan. Badago zerbait "faltan zaituztegu" komunitario horretan. Badago indar politiko bat hor, uste dut zerbait gertatzen dela munduan modu kolektiboan esaten dugunean norbait falta zaigula.

***El invencible verano de Liliana*-ren justu aurretik beste liburu bat argitaratu zenuen, *Autobiografía del algodón* [Kotoiaren autobiografia]: zure aiton-amonen historia eta bizitza aztertzen zenituen hor. Mexikoko ipar mugaldekoak ziren, zu bezala. Iruditzen zait bi liburuen artean badela loturarik.**

El invencible verano de Liliana liburu-serie baten parte da: liburu horietan modu nabarmenean nahastu ditut fikzioa eta ez-fikzioa. Serie horretako lehena *Habia mucha neblina o humo o no sé que* [Behe- laino trinkoa zegoen, edo kea, edo ez dakit zer] izan zen: nire hurbilketa pertsonala Juan Rulfo idazle mexikar sonatuarengana.

Nolakoa izan zen hurbilketa hori?

Bere liburuak ez ezik, bere idazketa sortu zen lekuetara joan nintzen, haren bi-deetatik ibili, eta hark hartutako lan-erabakien inguruan ere gogoeta egin nuen.

Erabaki polemikoak: besteak beste, presak sortu zituen zenbait lekutan, lurrak kenduz -batzuetan indarrez- komunitate indigenei. Liburu horren ostean *Autobiografía del algodón* etorri zen, non nahastu baintuen artxibo-ikerketak, landa-lana eta ikuspegi oso material bat. Uste dut ziklo bat ixten dela *El invencible verano de Liliana*-rekin. Orain fikziora itzuli nahi dut, baina batek ezin du, besterik gabe, fikzioa ez-fikzionalizatzeari utzi.

Beste norbait zara liburu horiek idatzi eta gero.

Horixe bera. Orduan ikusiko dugu ea zer gertatzen den.

Zer idazten ari zara orain?

Gauza mordo bat! Narrazio-liburu batekin nabil, ea zer ateratzen den. Eleberri bat ere badaukat: buruhauste handiak sortu dizkit, eta denbora behar du oraindik. Bestalde, María Zambrano bekarekin zerikusia duten kontuei dagokienez, elkarriketak egiten ari naiz *latinx* idazleekin, batez ere ingelesez idazten dutenekin, ikusi nahian ea zer gertatu zaion beren espainiarari. Idazle horiek elebidunak dira, eta haien idazketa-esperientziari buruz askotan esan izan dena da hizkuntza bat galdu dutela. Baina nire susmoa da ez dutela hizkuntza bat gal-

du, baizik eta hizkuntza hori lanean ari dela beren ingelesezko testuetan ere, hainbat modutan, baina ez garela modu horiek ikusteko eta aztertzeke gai izan. Orduan elkarrizketa-sorta bat egiten ari naiz, eta espero dut liburu bat egitea horrekin laster.

Zuk zeuk literatura idatzi ez ezik, beste batzuek idazten dutena ere aztertzen duzu.

Niretzat oso garrantzitsua izan da beti, idazle gisa, nire tradizioak eza-gutzea, nire liburuak non kokatzen diren jakitea, zerekin edo norekin hitz egiten duten jakitea. Idazlea naizen aldetik, emakume-gorputz batean bizi naiz, genero-desberdinkeria handiko gizarte batean, eta ni ez nintzen Mexikoko erdigunean jaio, mugaldekoea naiz. Hau da: idazten hasi nintzenean, idazketaren nozio nagusia hirietako gizon zuri, erdiko klaseko eta abarrei zegokien. Ni ez nintzen hori, eta uste dut ia naturala izan zela niretzat, neure idazketan pentsatu ahal izateko, idazketaren agindu nagusi horiek kritikatzea. Horrenbestez hasieratik izan nuen bokazio kritiko hori.



Azken galdera bat, baina ez da nirea. Atzo hitzaldira nirekin etorritako lagunak idatzi zidan koadernoan. Zein da zure errituala heriotzarako eta bizitzarako?

Ufa. Baina milaka urte pasa ditzakegu horretaz hizketan! Lilianaren presentzia oldartu egiten zait etengabe eta gutxien espero dudak lekuan. Denbora guztian gertatzen zait, eta oldartu egiten zaidala diot zeren sentsazio hori daukat. Ez da alde aurretik pentsatutako zerbait. Baina lortu dut agerpen horiei nola erantzuten diekan bideratzea, nolabait ere. Lehen, sekulako sustoak hartzen nituen. Orain, nolabaiteko harreman bat sortu dut. Atzo aipatu nuen Lilianaren presentzia materiala sumatzen nuela bere paperekin lanean

aritu nintzenean. Bada, geure mamuen eta agerpenen materialtasun hori nabarmendu nahi nuke; hori lantzen dut etengabe.

Eta bizitzari dagokionez?

Bizitzarako erritualak asko dira, ezta? Urteek aurrera egin ahala, lasaitasunari eustea eta bake-espazio bat edukitzea funtsezko kontuak bihurtu dira niretzat. Oso baliagarria zait oinez ibiltzea, igeri egiten ere saiatzen naiz, baina oinez ibiltzea meditatzeke modu bat da niretzat, erritual bat. Ezin dut denbora luzez idatzi, bizpahiru ordu egunean aski da niretzat, eta uste dut fisikoki prestatu behar zarela horretarako, ahalegin handia da. Ahalegin fisikoa da. Modu horiek topatu ditut segitzeko. ●

**BILBOKO
AREATZAN**
maiatzaren 22tik 25era

2024

GAZTEEK
ikasturtean egindako
STEAM
proiektuak
IKUSGAI

zientzia-azoka.elhuyar.eus



**zientzia^o
azoka**
elhuyar

*bizi
ikerketa!*



Babesleak:



Kolaboratzaileak:





Gezur Handia

Mariana Mazzucato eta Rosie Collington egileek *Gezur Handia* liburua argitaratu berri dute. Efizientzia ekonomikoaren izenean bulego pribatuek gobernuen politikak diseinatzeari sortzen dituzten eragin negatiboak aztertzen dira bertan. Liburuaren azpititulua edukia haria marrazten du: “Aholkularitzaren industriak ola enpresak ahultzen dituen, gobernua infantilizatzen dituen eta ekonomia galbideratzen duen”.

Mazzucatok 2013. urtean *Estatu ekin-tzailea* liburuarekin hartu zuen ospe akademikoa eta politikoa. Geroztik ekonomia, balioaren sorkuntza erreala eta gobernuen esku-hartzea analizatzeko eta irudikatze moduari buruzko eztabaida ofiziala astintzea lortu du. Gogoan izan behar dugu, sozialdemokraziak berak ere, 1990eko hamarkadaren ondoren ekonomiaren ikuspegi liberal ortodoxoa onartu egin zuela *historiaren amaieraren* garaian. Ortodoxiak botere publikoaren baliogabetzea eta eragile pribatuen goratzea ekarri zituen, azken horiek onura komunaren aldeko berezko interesa balute bezala eta beren azken helburua etekinak gehitzea ez balitz bezala.

Mazzucatoren lanak narratiba hori apurto du, bere ikerketa zuhurrekin mito hegemoniko franko leherrarazita. Ekonomiaren esparruan askotariko ikuspegiak eta instituzionalak duten inportantzia ohartaraztean logika libe-

Ardura instituzionaletik
aholkulari
ahalguztidunei atea
perez pare zabaltzen
zaizkie eta politika
publikoetako ildo
nagusiak ezartzeko
ahalmena transferitzen
zaie

ralaren oinarriak kolokan ipintzen ditu. Lan horietan botere publikoaren ekonomi esku-hartzearen garrantzia ipintzen du arreta, eta ekonomia, berrikuntza eta efizientzia indartzeko aktore giltzarria dela aldarrikatzen du. Paradigma ekonomiko ofiziala narriatzeaz eta sektore publikoaren aldeko alternatiba eraikitzeaz harago, beharrezkoa zen aholkularitza boteretsuen gaineko azterlan kritikoa ekarri du argitara Collingtonekin batera, oraingo liburu berriarekin.

McKinsey, Boston Consulting Group, Deloitte, PwC, Ernst & Young, KPMG eta esparru ofizialetan prestigiodunak diren beste bulego erraldoi batzuen ibilbidea analizatzen dute egileek liburuan. Eta irmoki ondorioztatzen dute horien negozioak egiteko eredia eta sektore

publikoan eragitekoa *gezur handia* dela, azpitituluak berak iradokitzen duen moduan.

Mundu mailako adibide eta kasu praktiko ugari erabilita, ikerketak sakonki analizatzen du kudeaketa publikoaren erdigunean sartzean aholkularitza enpresa horiek onurak baino gehiago kalteak ekarri dituztela herritarrentzat zein ekonomiarentzat. Baina salbuespena dago, korporazioen zuzendariak eta akziodunak, alegia, horiek eskuratutako diru-sarrerak izugarriak izan baitira.

Bi egileek aholkularitza enpresa erraldoiei egiten dieten kritikari agintari publikoei leporatutakoa ere gehitu behar zaio. Izan ere, ardura instituzionaletik aholkulari ahalguztidunei atea perez pare zabaltzen zaizkie eta politika publikoetako ildo nagusiak ezartzeko ahalmena transferitzen zaie. Era horretan, agente publikoak bere politiken erantzukizuna kanporatu egiten du eta beharrezkoa den jendartearen aurreko kontuen aurkezpenei saihestu.

Gezur Handiak plazara dakar ekonomiaren mekanismo eta logikaren barnean hainbat faktore sozialek eta instituzionalek duten indarra. Gaur egungo ekonomiaren laino beltzak uxatzen hasteko ezinbestekoa den argi izpiak ekarri, Mazzucatok eta Collingtonek politika publikoetan interes orokorra gailentzeko funtsezkoa den beste urrats teoriko bat ematen dute. ●



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Mila esker, euskara



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Mila esker, euskara, gure gaitzaren sintomak erakusteagatik. Izan ere, hemen arazorik ez dugula emanen luke, zuregatik ez balitz, menderakuntzarik ez dagoela, posible dela garrantzizko ezer gertatuko ez balitzai gu bezala bizitzea. Tira, nahiko genuke hori ameskeria fantasiosoa ez izatea, baina hala ez denez, bizi dugun normaltasun susmagarri hau astintzera etorri ohi zaigu euskara. Gauzak ez doazela ongi, erabilera beheeraka doala, ez dakit zein epai edo neurri bidegabe hartu dutela. Eta hara non arazo bat dugula ohartzen garen, bere horretan dirauela euskararen arazoak, eta horrelakorik nola gertatu ahal den galdetzen diogu geure buruari; zergatik ote, zer kalkulatu genuen gaizki, edo zerk huts egin duen kontrolpean genuela uste genuen gure estrategian.

Euskarak azaleratzen ditu euskaldunok daukagun gaitzaren sintomak, hizkuntza delako herri gisa dugun berezitasun ikusgarriena. Eta eskerrak, sintomak bakarrik ekarri ahal dutelako salbabidea barnean eritasuna dugularik, horien bitartez baizik ez baita jakiten ahal zerbait ez doala ongi, botika eraginkorra bilatu eta sendabide egokian jartzeko.

Horretarako, baina, diagnostiko egokia egin behar izaten da. Buruko min baten kasuan, esaterako, mina zerk eragiten duen jakin beharra dago, migraina episodioa den, ala burmuineko tumore

baten ondorio, botika ezberdinak behar direlako gauza bat izan ala bestea, eta tumore bat ezin delako migraina balitz bezala tratatu. Esango nuke horretan ez gabiltzala ongi, zeren eta nola harritu gaitzake bestela herri menderatu baten hizkuntzaren mendekotasun egoeragatik? Zergatik zaigu harrigarria, herri zapaldu batean hizkuntza zapaldua delako albiste?

Horrekin harritzeak eta asaldatzeak erakusten du euskaldunon kokaleku politikoa nolakoa den: gure egoeran euskararen egoera ona izan daitekeela sinesterrainokoa bezain inozoa, edo gure arazoaren iturburua halako epaileren erabaki bidegabea edota ez dakit zein dekretu edo legeren urraketa dela uste izateraino bezain eskasa.

Noski, egia da ongi-edo bizi gintezkeela, bai, baina halako ghetto-bizimodu prekarioan, beharko genukeen anbizio politikoa gorenik gabeko jarreraren instaluta, amore emanda. Bada, ados, konforma gaitzen otapur horiekin, horien kantitatea baizik borrokatzen ez dugula, baina ez dezazuela eskatu gero herri libreen hizkuntzek bakarrik izan dezaketen osasuna eta bizitza kalitatea geurearentzat ere, oso espektakulu negargarria ematen dugulako herri independente izan gabe halakoek dituzten pribilegioak nahi eta exijitzen ditugunean.

Euskararentzat duintasuna nahi badugu, jar gaitzen herriaren askapenerako beharrezkoa den politika gorenaren



DOM CAMPISTRON

bidean, hizkuntzak eragiten digun kezka bakoitza independentziarako energia dosi bilakatzen. Euskararen sintomak Espainiak eta Frantziak gure herriaren kontra ezarria duten egiturazko zapalkuntzak eragindakoak izanik, zapalkuntza hori gainetik kentzea delako euskararen biziraupena berma dezakeen botika bakarra, herriaren biziraupenerako ere bide bakarra den neurri berean.

Bestelakoak, heriotza bitarteko botika palatiboen bide antzu besterik ez dira, eta hori hala dela aitortzea beharko luke euskararen (eta Euskal Herriaren) aldeko erakunde politikoen lehen egin-kizuna, zapalkuntza hori seinalatuta, eta hortik askatzeko estrategia eraginkor eta sinesgarriak proposatuta. Baina bati ere horrela egiten ez denez, herriari dagokio orduan horren salaketa egitea, eta beste bide batzuetatik ekitea gure arazoiari.

Oso arduragabeak gara, eta garesti ordaintzen ari gara, oso garesti. ●

Zaintzaren erdigunean



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Bati fardela aldatzea. Beste bati gorputza garbitu eta ximentzea. Jana atondu eta norbaiti jaten ematea. Norbaiten gorputza oheratu edo ohetik altxatzea. Goitikan ari dela inori eutsi eta hura garbitzea. Horiek guztiak dira zaintzeko lanak. Zerrenda askoz luzeagoa da, nahiz gutxitan egin, entzun edo ikusi halako lanen errolda osoa.

Anitz mintzatzen da zaintza-lanak erdigunean paratzeko beharraz, egiteko horiek agenda sozial eta ekonomikoan nabarmentzeko muntaz, zaintza-lanak emakume-lana izateak eta halako zereginen zein egileen (zaintzaileen) balio-galerak sortzen duten egoera desorekatu eta bidegabeaz.

Anitz mintzatzen gara zaintzaz, baina ez ditugu xehe-mehe aipatzen, banan-banan aletzen, tiletez tilet deskribatzen. Ez behinik behin plazan, ororen aitzinean, ez hedabideetan edo mitinetan.

Hala ere, komeni da egitea abstrakzio usatuei ihes egiteko, bederen, arazoaren azalean harraskatzetik sakoneko erroak ezaugarritzera pasatzeko. Zaintzaren erdigunera iristeko, zaintzak dakartzan zailtasunei heltzeko. Ez nork berean bakarrik, zaintzetan murgiltzea norberari egokitzen zaionean, baizik eta denon artean, komunitate gisa.

Eta bide batez, zaintza-lanen ñabar-durak ere plazaratzeko. Ezen ez baitugu

inoiz esaten, baina ez da berdin jasaten fardela haur bati aldatzea edo zahar edo ezindu bati, ez gara berdin sentitzen loratzen ari den gorputz berri bat garbitzean edo gainbeheran doan gorputz higatu bat artatzean, arras diferente dira jaten ematea edo goitikan laguntzea artatua nor den: adin txikiko gizakitxoa edo bizitzaren azken txanpan ari den lagun makaldua.

Halako lanak sentitzeko eta eramateko eran ere, generoak agintzen baitu: emakumeok errazago-edo eramaten ei ditugu zaintza-neke horiek, adineko jendeak nahiago du andreek artatzea eta gurasoetan nekez ikusten da gizonak hartzen haurrak zaintzeko. Arrazoiak arrazoi, emazteek eta gizonek jarrera, sentipen eta emozioei aurre egiteko manera diferenteak garatzen ditugu: izuak eta nazkak desberdinak dira gorputzen aje edo minei so egin eta leuntzeko orduan, eta nork bere burua babesteko erak ere bai.

Zaintzak ertz mingarriak ditu, eta besteen ahulezia, min eta egonezinei aurre egin beharra ispilu bihurtzen zaigu, geuk ere inoiz pairatu dezakegun endekapenaren mirail. Tresna psikoemotionalak beharko genituzke, komunak, guztien eskura, bizitzaren alderdi zail horiei heltzeko. Zaintza-lanak (ere) goxatzeko. ●

Kontzertu estelarrean (fikzio espekulatibo bat)



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Aurtengo jazzaldiaren kontzertu estelarrean zaude, zuk gehien maite duzun pertsona (multzo) batekin. Pradales dagoeneko lehendakaria da eta, beraz, Osakidetzaren arazo larria onbideratzen ari dira. Espiritu autonomikoa nagusi da jendearen aldartearen; hori dela medio, berdin egon zaitezke Gasteizen, Getxon edo Donostian –fikzio espekulatiboaren abantailak ere badira, irakurle: zeuk aukera dezakezu festibala–.

Emakumezko kantari ospetsuak txalo handi bat eskatu du bigarrenaz aita izan berri den piano jolearentzat. Eta denok jo dituzue esku-zarta beroak –zuk, egia

esan, zalantza pixka bat izan duzu; ausart zaitez, baina, hotzpep jokatzera jazzaldiaren klimaxeant!–.

Pertsonalki une magikoa bizitzen ari dela aitortu du pianistak, eta, horren erakusgarri, bakarkako bat egin du. Hitzetaz baino hobeki adierazten omen daki musikaren bidez. Aitatasunari dedikatutako *solo* zoragarria eskertu duzue, zutik eta txaloaldi luzean. Minbera sumatu dituzu eskuak zuk ere.

Eszena bukatutakoan, bakardade isilean uxatu duzu –itxuraz– zuri bakarrik bisita egindako ezbaia: ez ote lukeen hobe musikariak aitasunaren magia etxean ospatzea. ●

Gabarra, tabarra... eta emakumeak zer?



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Aste batzuk igaro dira zoramen kolektibo zuri-gorritik eta, bai, badakit, azken ordukoa ez izateaz gain, gaiarekin gogaituta gaude gutariko asko. Gaur dut, ordea, artikulu hau idazteko data eta tabarra mundialaz geroztik nabil hurrengo hitzok idazteko, oihukatzeko, goitikatzeko gogoz (hori edo lehertu!): eta emakumeak zer?!

Komunikabideek esan digute Athleticek ez duela koparik irabazi 1984tik... gezur borobila! *Gizonek* ez dute irabazi! Emakumeek liga bost bider irabazi dute 2002 eta 2016 urte bitartean. Non geratu ote dira politikarien M8ko berdintasun aldarriak...? Hiru aste eta futbol pilota bat nahikoak izan dira ahanzturaren zulo hipokritan gordetzeko.

A11n *forofismo manolo-lololo*-az betetako inurritegian pankarta ausart bakan batzuk ikusi nituen *Noizko emakumeoi aitortza kirolean?* gisako leloekin. Nik bertatik alde egin nuen; bilbotar petoa den honek argi zeukan: ez bada guztion jaia, hau ez da nire jaia! "Zeinen burugogorra zaren! Une historikoa galduko duzu!" entzuteko, gainera. *Alaporai*, goizean goiz, milaka pertsona ja-

Jaietan emakumeak
baztertzea ezinezkoa
iruditzen zaigun
garaiotan, nola da
posible normaltasun
osoz hartzea emakume
futbolarietarako dagokien
ospakizuna ukatzea?

sotzeko hiria hankaz gora jartzen zuten unean, nik kontrako norabidea hartu nuen, eta harro.

Ospakizunak berdintasunean gozatzeko, borrokak eta malkoak isuri ditugu gurean; duela hogeitun urte Irunera joaten ginen *fatxa* atzerakoien irainak, listuak eta bultzadak jasotzeko... gure lekua irabazi genuen arte! Jaietan emakumeak baztertzea ezinezkoa iruditzen zaigun garaiotan, nola da posible normaltasun osoz hartzea emakume futbolarietarako dagokien ospakizuna ukatzea emakume izate hutsagatik?

Kontrara, zergatik merezi dute pilota batekin abilak diren gizontxo dirudun horiek tamainako gorazarre desfasea? Mugituko zen kopurua aurrez jakina izanagatik, tristuraz konprobatu nuen jendetza horren hamarrek batek ere ez duela hatzik mugituko munduan zein gugandik gertu dauden bidegabekeriak salatzen.

EAEko Berdintasun Legeak dio erakunde publikoek ezin dutela diruz lagundu emakumea diskriminatzen duen kirol jarduerarik. Arrotzak senti ditzakegun legeen gainetik, Athleticek diru publikotik jasotzen duen puskak (zergen araubide berezitez gain) kezkatu beharko gintuzke, geure burua ezkertiarizat dugunok, bederen. Bilboko klub jauretsiak 130 milioi inguruko aurrekontua du aurten; bere webgune ofizialeko "gardentasun" atalean ez dut topatu zehazki zenbat diru esleitzen dion Bilboko Udalak (hornitzaile ofiziala) edota Bizkaiko Diputazioak ("San Mames Barria SL" elkartearen bazkide nagusietakoa), biek ematen badute ere. Ustezko gardentasun hori arakatzen jarraitu beharko dut... eta ea uholde zuri-gorria more-gorri-beltzarekin uztartzen dugun! ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

Nork kontatzen dizu mundua?

Palestinarren Nakbak, edo 'Hondamendi handiak', 76 urte bete dituen honetan, gaia sakontzen jarraituko dugu bi irakurgairekin. Batetik, Askatasunaren Ontzidian parte hartzera Euskal Herritik Istanbulera joandako Mikel Zuloagaren eskutik. Bestetik, Nazarethen bizi den Jonathan Cook kazetari ingelesaren artikulu bat euskaratu dugu. Lan horretan hainbat gako eskaintzen du Gazako genozidioaren ostean zer etor litekeen ulertzeko.



PALESTINA, MAITE ZAITUGU, ASKE

MIKEL ZULOAGA 'MIKELON' FRANCIS CHUNG

Titularra beste bat izan zitekeen: “Ez gaitzatela nahastu”, unibertsitatean kanpatzeagatik esaten digutenean Hamas babesten dugula, terroristak, antisemitak edo bortitzak garela leporatzen digutenean, unibertsitatetik kolpeka atera gaituzten arren. Aktibismoa kriminalizatzea da jendea desmobilizatzeko sistemak gehien erabiltzen duen jokamoldeetako bat.

Ez gaitzatela nahastu... Israel estatu demokratiko gisa homologatzen dutenean. Izan ere, bateragarria al da demokrazia genozidioarekin? Ez da gerra, sarraskia da. Eta ez da orain jaio krudel-tasun sistemiko hau, hainbat hamarkadaz ari da luzatzen sarraskia.

Ez gaitzatela nahastu... esanez ez dela okupazioa. Palestinako demografia espontzialki aldarazi zuten, “agindutako lurra” deitzen zioten lekura milaka juduk migratu izanak, eta aldi berean, milaka palestinar beren lurraldetik bortxaz kanporatu izanak.

Mundu osoko juduak erakartzeko Mugimendu Sionistak erabiltzen duen leloa ez da egia: “Jenderik gabeko lurra, lurrik gabeko herriarentzat”. Beraiek masiboki iritsi aurretik batez ere arabiar-palestinarrak bizi ziren.

Lurraldearen okupazio progresiboak, lurren desjabetzeak, etengabeko desplazamenduak eta kolonia berriak Palestina zati-katzen doaz. Elkarrengandik deskonektatu-tako lur-eremu txikiak, uharte modukoak, sortzen ari dira, hesiz edo harresiz isolatuak. Eta lurrik gabe, Palestinarik ez da existitzen.

Ez gaitzatela nahastu... esaten dutenean Israelek defendatzeko eskubidea duela. Norengandik baina? Lur horretan bizi direnengandik? Erailtzen ari diren milaka eta milaka palestinarrengandik? Mutilatzen ari diren gazatarrengandik? Gosez hiltzen ari zaren horiengandik defendatzeko eskubidea daukazula diozu?

Frantzia okupatu zuten naziek ba al zuten beren burua defendatzeko eskubidea? Norengandik baina? Okupazioari aurre egin zion erresistentziarengandik? Maki pales-

tinarrengandik? Herrialde bat okupatzen baduzu bertako biztanleei izua gorputzean sartuta, zaila da pentsatzea ez dela erresistentziarik antolatuko. Naturaz kontrakoa litzateke aurkakoa.

Ez gaitzatela nahastu... Holokaustoarekin, gu antisemitak garela esanda. Israelek Holokaustoaren memoria erabiltzen du bere burua biktimizatzeko. Holokaustoaren biktimak ohoratzen ditugu, eta horrexegatik ez dugu ulertzen nola hori pairatu zuen herri batek “gasifika” dezakeen beste bat bonbak jaurtita eta gosetea eraginez.

Ez gara antisemitak, ez gaude judu herriaren aurka, supremazismo sionistaren aurka gaude; eta aldi berean, genozidioaren aurka publikoki kokatu diren juduak miresten ditugu.

Ez gaitzatela nahastu... Israelen indar infinituarekin. Bere indar militarra askoz txikiagoa da herri palestinarren koherentzia eta erresistentziaren iraunkortasuna baino.

Palestinaren aurkako sarraskia izateaz gain, mundua beste era batez eraikitze gogoen aurkako gerra ere bada

Palestinaren aurkako sarraskia izateaz gain, mundua beste era batez eraikitze gogoen aurkako gerra ere bada. Hegoalde globala altxatzen ari da. Ere-mu horretan aginteari eusteko AEBek Israel behar dute. Europa ge-

nozidioaren txotxongiloa eta NBERen adierazpenak paper bustia besterik ez dira, eze-rezean geratzen direnak.

Ez gaitzatela nahastu... esanez ezin dela ezer egin. Israelen hiltzeko makinak ez luke funtzionatuko oso ongi eraikitako aliantza diplomatiko, komertzial, finantzario eta asoziatiborik gabe. Gure egin beharra da, planetako txoko guztietatik aliantza horiek ahultzea. Soilik boikotaren bitartez eta sionismoarekin kolaborazio eta lotura oro etenda lortuko ditugu beren bortizkeria geldiaraztea eta geure burua berriz gizaki gisa ikustea.

Ez gaitzatela nahastu. Gazako blokeoa hautsi nahi dugu. Genozidioa geldiarazi nahi dugu. Baina, batez ere, Palestina herri librea izatea nahi dugu beste edozein herrialde bezala.

HAUXE DA GAZA SUNTSITZEKO ISRAELEN ETA AEB-EN PLANA

 JONATHAN COOK  MAHMUD HAMS/GETTY IMAGES

Ez da azitia izan behar ulertzeko Israelen eta AEBek Gazarako duten plana ondorengoa dela gutxi gorabehera:

1- Jendaurrean Joe Bidenek “gogor” plantak egiten ditu Benjamin Netanyahu aurrean, eskatzen dio ez dezala Rafah “inbaditu” eta presio egiten dio Gazan “laguntza humanitario” gehiago sartzen utz dezan.

2- Baina Etxe Zuria jada lanean ari da berak zabalduetako mezuei buelta emateko. Behin eta berriro dio Israelen Hamasi “oso akordio eskuzabala” eskaini diola, eta akordio hori, Washingtonen iradokitzen duenez, su-eten baten antzekoa litzateke. Baina ez da hala. Zenbait txostenen arabera, Israelen eskaini duen gauzarik onena “barealdi iraunkor” mugagabea da. Eta promesa hori ere ez da fidagarria.

3- Hamasek “tratua” onartzen badu, eta bahitu batzuk itzuli, bonbardaketak murriztu egingo dira denbora batez, baina gosetea areagotu egingo da, Israelen Hamasen aurka “erabateko garaipena” lortu nahi duelako. Hori ezinezkoa da. Horrek soilik atzeratu egingo du –egun edo aste batzuk–, Israelen bosgarren urratsera pasatzea.

4- Hamasek “akordioari” uko egiten badio, alde intrantsigente gisa aurkeztuko dute eta “gerra” jarraitu nahi duela egotziko diote. (Oharra: hau ez da inoiz gerra bat izan. Soilik Mendebaldeak planteatzen du gudan egon zaitezkeela zenbait hamarkadaz okupatzen ari zaren lurralde batean, edo Hamasek “hasi zuela gerra” urriaren 7ko erasoarekin, Israelen hamazazpi urte daramatzanean Gaza blokeatzen, han etsipena eta desnutrizioa zabalduta).

Maiatzaren 2an, AEBetako idazkari Anthony Blinkenek gidoi hori aurreratu

zuen. Gazako herritarren eta su-etenen artean dagoen gauza bakarra Hamas da. Erabaki bat hartu behar dute eta azkar gainera”.

5- AEBek iragarriko dute Israelen prest duela Bidenek ezarritako baldintzak betetzen dituen plan humanitario bat Rafah-ren aurkako eraso abiatzeko.

6- Horrek AEBei, Europari eta eskualde hartako herrialdeei aitzakia eman go die albo batean geratzeko, Israelen hainbeste denboraz amestutako eraso abiatzen duen bitartean. Bidenek alde aurretik adierazi izan du eraso hori “marra gorria” litzatekeela, biktimak zibilak masiboki eragingo dituelako. Hori guztia ahanzturan eroriko da.

7- *Middle East Eye* hedabideak argitaratu duenez, Israel checkpoint-ek osatutako eraztun bat eraikitzen ari da Rafah inguruan. Netanyahu iradokiko du, gezurra esanda, horiei esker nazioarteko zuzenbide humanitarioak ezarritako baldintzak beteko dituela. Irteten utziko die emakumei eta haurrei; kontrol-postu horietako batera iristea lortzen badute bederen Israelen bonbardaketaren batek bidean hil aurretik.

8- Rafahko gizon guztiak eta bertan geratzen diren emakume eta haur guztiak borrokalari armatu gisa tratatuko dituzte. Ez badituzte bonbardaketek edo etxe-hondakinen amiltzeek hiltzen, exekutatu edo Israelgo tortura ganberetara eramango dituzte. Ez du inork aipatuko Rafahn zeuden Hamaseko borrokalariak tunelen bidez atera ahal izan zirela.

9- Rafah suntsitu egingo dute, Gazako zerrenda osoa hondatuta utzita, eta Israelen eraginako goseteak okerrera egingo du. Mendebaldeak eskuak burura eramango ditu, esango du Gazan gertatua Hamasek eragin duela, zer egin

behar ote den larritasuna adieraziko du eta beste hirugarren herrialde batzuei presio egingo die –bereziki arabiarrei– “plan humanitario” bat egin dezaten bizirik atera direnak Gazatik kanpo birkoka ditzaten.

10- Mendebaldeko komunikabideek jarraituko dute Gazan Israelen egindako genozidioa termino humanitario hutsetan deskribatzen, “hondamendia” Jainkoaren ekintza izan balitz bezala.

11- AEBen presiopean, Nazioarteko Justizia Auzitegiak, edo Munduko Auzitegiak, ez du presarik izango behin betiko epaia emateko, ea frogatuta dagoen Hegoafrikak Israeli genozidioa egiten ari dela eginiko akusazioa. Dagoeneko “posibleztat” jo duen genozidioa.

12- Erabakitzen duena erabakitzen duela Munduko Auzitegiak, eta ia ezinezkoa da imajinatzea ez duenik esango Israelen genozidioa egin zuela, beranduegi izango da. Mendebaldeko klase politiko eta mediatikoak orrialdea pasatua izango du, horrek guztiak zer esan nahi izan zuen erabakitzeke arduratzen diren historialariei utzita.

13- Bien bitartean, Gazan sortutako aurrekariak jada erabiltzen ari da Israelen eredu gisa Zisjordaniarako. Batez ere, duela denbora askotik ezarritako nazioarteko zuzenbide printzipioen higadura. Hamas ez zela Gazan erabat garaitua izan eta Palestinako beste eremu batzuk base bezala erabiltzen ari dela esanez, Israelen Zisjordaniaren gaineko presioa areagotu du pixkanaka, beste blokeo batekin. Orain arte eraginako zikinkeria garbitu eta errepikatuko du.

Horixe da planik probableena eta gure lana da gure esku dagoen guztia egitea errealitate bihurtu ez dadin. Utzizte ekin horretan parte hartu dutenek. ●



“Herrietan lumek lekua daukate, edo behintzat, nire gorputzak kabitzea lortu du”

Joten erritmora harro erakusten du luma Itxi Guerra aktibista antikapazitistak (Madril, 1998). Gorputz desgaituek bizi dituzten biolentziak balioztatzeko eta sistemari aurre egiteko saretzearen garrantziaz mintzatu da. Gorputzaren bizigarritasuna aldarrikatu du:

“Haurrentzako erreferente izan behar gara, ikusteko etorkizuna dutela, eta *disca*-k ere gure gorputzak aldatu gabe existitzen eta zahartzen garela”.

 OLALIA L. GARAIALDE  ITXI GUERRAK UTZIAK



Itxi Guerra

Ruptura y reparación de la máquina. Escritos desde un cuerpo lisiado (Makina haustea eta konpontzea. Gorputz elbarri batetik idatzita) liburua argitaratu du. Hilaren 25ean Donostian izanen da, 17an Getxon eta 18an Bilbon.

Bi urterekin eman zioten diagnostikoa, eta txikitatik “desberdin” pertzibitu du jendeak: “Ez dakit ongi edo gaizki, baina desberdin”. Haurreskolan toki batetik bestera kaxoi bat eramaten zuen oinak jartzeko; kaxoia kentzen zioten eta jolasten hasten ziren haurrak. Horrez gain, etengabe klasetik ateratzen zuten fisiara joateko, gorputz heziketan aparte jartzen zuten eta lekuz kanpoko iruzkinak egiten zizkieten. Gaztetatik argi zuen diskurtso medikoan zentratzen dela desgaitasuna. 17-18 urterekin kapazitismoa salatzen zuten Erresuma Batuetako testuak aurkitu eta hitzaldiak ematen eta desgaitasuna politizatzen hasi zen: “Barneratutako

kapazitismoa deseraikitze prozesu bat egiten hasi nintzen. Gainera, nire bizipenak indibidualak izan beharrean, kolektiboak eta egiturazkoak zirela ikusten hasi nintzen”.

Guerrak “disca” terminoa –gaztelaniazko *discapacitado-a-e* hitzaren laburpena– aldarrikatzen du pertsona desgaituak ahalduentzeko, diska hitzari karga politikoa atxikitzen baitio. Izan ere, 17-18 urte bete arte, behin eta berriz ukatu izan dute bere gorputza: “Maila indibidualean, neure gorputza ukatzen nuen esanez ez nuela diska izan nahi. Horrez gain, medikuek, fisioek eta beste luze batek, esaten zuten nire gorputza ez zela baliozkoa izanen, aldatu arte”. Guerraren arabera, medikazioaren bidez desgaituen gorputzak “konpontzea” bilatzen dute sistema kapazitistak eta kapitalistak: “Gorputz diskak apurtuta dauden eta erreproduzitu ezin duten makinak dira sistema kapitalistarentzat. Horregatik,

“Jende diskarekin elkartu, eta beti ezabatzen saiatu direna elkar balioztatzeko eta harrotzeko prozesu bat egin dugu”

gure gorputzetatik errentagarritasuna ateratzen saiatzen dira medikazioaren bidez dirua lortu edota lan egiteko funtzionalitate eta errentagarritasun handiagoa bilatuta”. Horrek zaugarritasuna ez erakustearekin zerikusi handia duela uste du.

Gaineratu du desgaitasuna ezabatu nahi izatearekin lotura zuzena duela; horregatik, luma diska aldarrikatzen du: “Gure helburua da ikastea zergatik izan daitekeen polita luma diska. Lagun batek esaten zidan asko gustatzen zitzaiola audioak bidaltzen dizkiodanean, joten erritmora bidaltzen dizkiodalako. Azke-



GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Ipurdia perreatzeko, eta eskuak maite-maite egiteko".



nean, oso polita iruditu zitzaidan errena izatea artetik ikustea". Horretarako, lagunez inguraturik, poliki-poliki eta gorputza aldatu gabe, gorputz "bizigarria" duela sentitzeko prozesu "mingarri" bat egin du: "Jende diskarekin elkartu, eta beti ezabatzen saiatu direna elkar balioztatzeko eta harrotzeko prozesu bat egin dugu. Hala ere, sarerik ez baduzu zaila da luma mahaigaineratzea".

Harrotze prozesu horretan, haurrak ere kontuan hartzea eta haurrak babestea beharrezkoa dela uste du; izan ere, eskoletan "oso diskurtso kapazitistak" jasotzen dituzte: "Haurrentzako erreferente izan behar dugu, ikusteko etorkizuna dutela, eta diskak ere gure gorputzak aldatu gabe existitzen eta zahartzen garela".

BIDISKA

Sortzez Madrilgoa den arren, Cerdedon (Galizia) bizi da. Herri txiki bat da, eta bertan, luma diska erakustea "oso di-

bertigarria" dela azaldu du: "Horrelako herrietan mundu guztia da diska, horretara hurbiltzen diren señora zahar asko daudelako". Zumba klaseak hartzen ditu herrian, eta ez dago definituta nola dantzatu behar den; hau da, ez dago ongi edo gaizki egiteko modu bat, dantzatzeko modu asko daude: "Bakoitzak nahi duen bezala dantzatzen du, eta irakaslea saiatzen da klaseak irisgarriak egiten jendeak parte hartzea nahi duelako". Madrilen horrelako jarduera batean parte hartzea "askoz zailagoa" egingen zitzaiola nabarmendu du: "Herrietan lumek lekua daukate, edo, behintzat, nire gorputzak kabitzea lortu du". Hala ere, lan faltarengatik, pertsona sexu-genero disidente eta gazte gutxi dagoelako eta beste gauza batzuegatik, herrietan bizitzea "zaila" dela uste du.

Beste borroka askorekin lotzen du antikapazitismoa Guerrak, hala nola antiespezismoarekin, antikapitalismoa-

rekin, anarkismoarekin eta kuir mugimenduarekin: "Oso zaila da definitzea zer pairatzen dudan diska izateagatik eta zer kuir izateagatik. Dena da bidiska naizelako". Horregatik, nabarmentzen du kuir identitatea diska identitatetik irakurtzearen garrantzia: "Gure genealogia onartzea da; duela gutxi arte kuir jendea diska moduan irakurri gaituzte. Kuirra diskatzat hartzeak funtzionalitatekin zerikusia duten arauarekin apurtzea da".

Gaineratu du lotura "handia" duela ez-binario izatearekin eta maskulinitatea eta feminitatea performatzeko moduekin: "Emakume diskak ez dituzte emakume gisa irakurtzen, aurreikusten dutelako ezin dutela familia bat osatu, ez direla sexyak eta desiragarriak eta ez dutela desiratzen. Horrek kolokan jartzen du zer den emakume izatea". Uste du borrokak kolektibizatuz eta saretuz sistema erasotzeko tresnak garatu daitezkeela; adibidez, siesta. ●

OLATUKOOPEK 10 URTE

Konpromisoa eta festa bat eginda, lurraldeak eraldatzeko

Iruñean eta Donostian, Olatukoopek hamar urte egin dituela ospatzeko ekitaldia eta festa antolatu ditu maiatzaren 14an eta 18an. Aste borobila izan da, eta ekonomia sozial eraldatzailea lurraldeetan hedatzen eta sarean ehuntzen jarraitzeko indarrak eman dizkie.

 **URKO APAOLAZA AVILA / JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

Hamar urte bizi-bizirik, proiektu, ekimen, kooperatiba eta lagun mordoa batuz ekonomia sozial eraldatzailearen mugimendura, edo "errizomara", lur azpian, isil-isilik baina etengabe korapilatu, saretu eta hedatzen den sustrai berezi horren metafora, bere eginda.

Asteartean, maiatzak 14, ekitaldia egin zuten Iruñeko Katakraken, Olatukoop sortu zen egun berean. Sarearen nondik norakoak eta helburuak azaldu zituzten han elkartutako dozenaka lagunaren artean, eta egungo sistema ekonomikoaren irakurketa politiko bat ere egin zuten. Olatukoop 2014an sortu zuten dozena bat eragilek eta hortik hamar urtera, 60tik gora kooperatiba, herrigintza elkarre eta eragile sozioekonomiko kooperatibo batzen ditu sareak –tartean, ARGIA–, orotara 600 langile eta beste ehunka kide bildu ditu. Urtez urte eta urratsez urrats, "praktikaren bidez lorturiko legitimitatea" azpimarratu nahi izan zuen Beñat Irasuegik Iruñean.

PITZADURAK IREKITZEN SEGI

Bizitzaren aldeko ekonomia helburu, "pitzadurak irekitzen" segitzeko gogoia berretsi zuten hamar urteen kari. *Ekonomia*

eraldatzaileak liburua esku artean, geroa begira daudelako: "Ez digute uzten pentsatzen ekonomia zer den. Liburu hau eta Olatukoop ekonomia da, eta gainera mailu bat da, gaur egungo sistema ekonomiko sozial tristea apurtzeko mailu bat".

Hala, eskuin muturraren gorakadaren testuinguruan, ekonomia sozial eraldatzailea izan liteke "faxismoari aurre egiteko elementu nagusi bat", azaldu dute ekitaldian.

EKONOMIA ERALDATZAILEAREN FESTA DONOSTIAN

Larunbatean, maiatzak 18, orain arte egindakoa eta hemendik aurrera egiteko geratzen den guztia ospatzeko eguna iritsi da, "ospatzen ez dena ez da existitzen" ideiarri eutsita. Horretarako, egitarau zabala antolatu dute Donostian, gauera arte musikaz lagunduta luzatu zena.

Goizean, Trinitate plazan jolas dinamika izan zituzten, Herribixiko Nerea Gartziaren eskutik. Lotsak utzita, konfiantza eta ahalduzkoa elikagai, indarrak hartzeko eta egunerokotasunetik at beste paisaia batean elkar ezagutzeko modukoak. "Ohituta gaude beste kode batzuetan harremanak izaten gure ar-

tean, konspiratzen edo planifikatzen... lanean azken finean, eta polita da beste kode batzuk ere erabiltzea; nik uste me-rezi duela ospatzea", dio TaPuntu kooperatibako Mikel Olaizek.

Olatukoop herrigintza eta enpresaren arteko uztarketa gisa irudikatzen du Olaizek: "Badakigu herrigintza egiten, eta aldiz badirudi enpresak egitea beste batzuei dagokiela. Baina Olatukoopen elkarrekin ikasi dugu ekonomia beste modu batean egin litekeela, ikuspegi feminista eta antiarrazistak txertatuta. Eta egitetik ikasten ere bai, beste eragileak eta sortzen ari diren proiektuak kutsatzen".

Goizeko jolas ariketek balio izan dute gorputzak esnatu eta irribarreak barrunbeetatik askatzeko, eta sarritan ahaztuta izaten dugun hain oinarritzkoa den horretarako ere bai: ondo pasa eta gozatzeko. Gartziaren aholkua amaieran: "Jolastu gehiago eta egin barre".

SAREA ZAINTZEN ETA AUZOAK ELIKATZEN

Bazkaritarako Arrano elkarteak betekada galanta hartu du, Basajaun sukalde komunitarioko lagunak prestaturiko otordu goxoaz gozatu ahal izan dute



OLATUKOOP



ENERITZ ARZALLUS



URKO APAOLAZA

Goiko argazkian, Iruñeko Katakrahen egindako talde argazkia, maiatzaren 14an, Olatukoop duela hamar urte sortu zen egunean. Behean ezkerretara, jolas dinamikak Donostiako Trinitate plazan Herribixiko Nere Gartziarekin, maiatzaren 18an. Egun osoko festa antolatu zuen Olatukoop. Behean eskuinetara, Goxo txarangaren atzetik Easo plazarantz kalejira alai.

bertaraturiko guztiek: kooperatibetako kideak, sareak, proiektuak eta lurralde garapanerako ezinbesteko diren herri-kooperatibak ere bai.

Ainara Mugeta Olatukoopeko koordinatzaileak dio sarea "hedapen tes-tuinguru batean" dagoela gaur egun: "Kualitatiboki eta kuantitatiboki Euskal Herrian lurralde guztietan ari da hedatzen ekonomia sozial eraldatzailea. Baina gure erronka orain sarea zaintzea

da, ditugun tresnak eta jakintzak denon esku jartzea".

'BELLA CIAO' DOINUAK EASO PLAZAN

Arratsaldean, Gipuzkoa Plazara egin du jauzi festak eta Iruñeko Goxo txarangaren atzetik Easo plazarantz abiatu ziren. Biba Ardoak kooperatibako kideek sorpresa batekin egin die ongi etorria sare-kideei Kaxilda liburu-denda eta topagu-

nean, Euskal Herriko ardo ekologikoak probatzeko aukera izan baitute. Gainera, nobedade bat ere iragarri dute: Kaxildako kantina eta jatetxea Donostiako espazio eraldatzaile berri bat izango da hemendik aurrera, kooperatiba horren eskutik.

Too mahats izan da, *Bella Ciao* doinuekin bustiriko esperientzia enologi-ko bat. Eta dantzari amaitu du egunak, jolasean eta barrez, utopiarantz bidea lagunekin egitea ederra delako. ●

ERLEETAN NORK DU AGINTEA?



**MATTIN JAUREGI ETA
INAXIO ARIN**
BALERDIPEKO ERLEAK

Erlauntza batean erregina bakarria dagoenez eta denen ama denez, bera dela agintari esaten da, baina ez da erabat zuzena. Erregina oso garrantzitsua da, baina erabaki garrantzitsuenak erle langileek hartzen dituzte.

Egia da erreginak erritmoa eta izaera ematen diola erlauntzari. Erreginaren erruteak erlauntzari jarraipena emango dio, egunero erle berriak jaioko baitira, eta horrela mantenduko da populazioa.

Erreginak bere usaina edo feromonak zabaldua mantentzen ditu langileak bere zereginetan. Erreginaren usaina erlauntza guztian zabaltzen dute erleek beraien hegalek bidez, erle guztiek usaindu dezaten. Erregina bakoitzak bere usaina du, badakite inguruko erreginen usaina ez dela beraien erreginarena eta horregatik ez dira erleak erlauntzaz nahasten.

Erreginak bere sekitoa du, inguruan izaten ditu 5-7 erle langile bera zerbitzatzen, falta zaion guztia ematen... baina langile horiek, erreginari laguntzeaz gain, erregina kontrolatzen dute ea bere zereginak ondo egiten ari den.

Erlauntzako monarkia puskatzen da langileek erabakitzen badute. Erregina bat bere funtzioak ongi betetzen ari ez denean, aldatzeko erabakia hartzen dute langileek eta bidali egiten dute erregina zaharra erlauntzatik.

Erregina bat hiltzen denean, arrautzetatik hurrengo erregina zein izango den ere erle langileek erabakitzen dute. Eta behar duten erlamando kopurua ere zehaztu dezakete, abaraska handiagoak sortuta. Langileek erlamandoak edo beraien erregina kalera-ru dezakete.

Beraz, nork du agintea? ●

AGENDA

MAIATZAK 23 ARRASATE:

Garbiñe Larrearen eskutik
"Zazpi sendabelar ukendua egiteko tailerra". 18:00etan Kultur Etxean. Eman izena bertara zuzenduta.

MAIATZAK 23 DONOSTIA:

"Agroekologiatik askatasunera" Amillubi proiektuaren aurkezpena. 18:00etan Teila Fabrikan.

MAIATZAK 25 LARZABAL:

"Sendabelar ukendu tailerra" Garbiñe Larrearen eskutik. Espelletenia ostatuan. Izena emateko: (0033) 559 37 81 91.

MAIATZAK 29 ALGORTA:

"Agroekologiatik askatasunera" Amillubi proiektuaren aurkezpena. 19:00etan Azebarri Kultur Elkartearen.

MAIATZAK 31 BILBO:

"Hausnarrean" liburuaren aurkezpena, Josebe Blanco egilearekin. 19:00etan Santutxuko Karmelan.

A ZE FAUNA!

OINUTSIK DABILEN IBILTARIA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

ZAPATARIA *Gerris lacustris*

TALDEA: Ornogabea / Intsektua / Hemiptera.

NEURRIA: 2-3 cm inguru.

NON BIZI DA? Ibai eta errekaetan, putzuetan ere bai.

ZER JATEN DU? Ornogabeak, intsektuak nagusiki.

BABES MAILA: Europa mailan ez dago babestuta.



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

Gertukoa dugu oso bere irudi bitxia: ur gainean flotatuaz, gu txikitan oheko koltxoiaren gainean korrika eta saltoka ibiltzen ginen antzera. Zentzuzkoa da pentsatzea animalien gorputzak uretan hondoratu egiten direla ur-azalean ibiltzen saiatzen direnean, baina zapataria ez da hondoratzen... Zer edo zer lekuz kanpo dago... Geroago argituko dugu, orain goazen bere bizimodua-eta hobeto ezagutzera.

Intsektu bitxi hau martxo erdialdera ikusten hasi eta negua gainera etorri arte ikusgai izaten dugu. Negua uren inguruko belar eta landareetan gordeta igarotzen du, hibernazio izeneko tartea betetzen. Bolada horretan metabolismoaren funtzioek galera energetikoa asko murrizten dute, eta animaliak aurreko hila betean metatutako jakien energiari esker irauten dute bizirik. Udaberrian, hibernaziotik atera eta gero, ugalketa garaia izaten da. Zapatarien metamorfosiak hiru fase ditu: “me-

tamorfosia sinplea” deritzo, ez baitute laugarren fase bat betetzen –tximeleten kasuan krisalida fasea izenekoak-. Hiru fase horiek arrautza, ninfa eta heldutasuna dira. Hilabete eta erdi pasatxoan, heldutasunera ailegatzen dira zapataria. Emeak jartzen ditu arrautzak uretako landaredian.

Intsektua denez, antena pare bat eta sei hanka ditu. Baina sei hanka horiek ez dira berdinak, ezta gutxiagorik ere! Eta betetzen dituzten funtzioak ere ez. Aurreko pare oso txikia da besteen aldean, eta harrapakinak bereganatzeko erabiltzen ditu. Jale ia aseztina dugu gainera! Erdiko eta atzeko hanketan dago bere uretan “flotatzeko” gaitasunaren gakoa. Horien amaieran zapataria, beste intsektu gehienek garro batzuk badituzte ere, kuxin antzeko egitura batzuk ditu, ilez beteta, eta ile horiek dira hain zuzen ere ur-azala zulatzen ez dutenak, animalia hondoratu gabe mugitzen uzten diotenak, alegia. Ile horiei “hidrofobo” deitzen zaie, ez bustitzeaz

gain bere inguruan aire puxika baten antzekoa sorrarazten baitute. Erdiko hanka pare besteak baino luzeagoa da, eta mugitzeko erabiltzen du. Bai azkar mugitu ere bi hankei esker soilik bada ere! Atzeko pare –erdikoa baino motzagoa, baina aurrekoa baino askoz ere luzeagoa– lema modura, norabidea aldatzeko, erabiltzen du. Lau hanka horien bitartez lortzen duen aire-burruila horri esker harrapakinak sorrarazten dituzten uhinak antzematean horien kokapenaz jabetzen dira. Esan beharra dago zapatariek kalteberak diren harrapakinak ehizatzen dituztela batez ere, baita hildako intsektuen gorpuak ere. Taldean harrapakin handi bat erasotzen ere sarritan ikusi daitezke. Begiak deigarriak dira, oso handiak baitira intsektuaren tamaina kontuan hartuta.

Zapatarien familiako (Gerridae) 1.700 espezieetik gora ezagutzen dira mundu osoan. Gainera, itsasoko uretan, ur gazietan, bizi direnak ere badira horien artean: ia berrehun! ●

MARRUBIAK KANTARI BILDU BEHAR DIRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

Marrubizalea al zara? Udaberriaren atea irekitzen du marrubiak. Egun bi marrubi talde ezagutzen dira, mailukiak edo basatiak (*Fragaria vesca*) eta marrubi tzarrak (*Fragaria x ananassa*). Biak paretzu loratzen dira, udaberriko ekinozioarekin. Aspaldikoak dira gurea baino lurralde hotzagoetan, AEBetan batik bat, udaberriari ongietorria emateko antolatzen diren marrubi festak. XIX. mendearen amaiera aldekoak ezagunak dira, eta ospakizunik handienen eran musika, dantza, joko eta abarren artean jan-edanerako marrubiak eta xanpaina izaten dira.

Europar, agidanean, marrubiari ez zioten gutiziaz begiratzen eta bertako mailuki txikia ez zen genetikoki garatu, teknikoki esaten den eran ez zen hobekuntza genetikorik egin. Ameriketako kolonizatzaile espainiarrek harriztuta ezagutu zuten maputxeen quelguena edo Txileko marrubi zuria (*Fragaria chiloensis*) eta haren marrubi erraldoiak –oilo arrautza baten tamaina artekoak– topatzean Europara ekarri arteko gauza onik

ez zuten izan. Frantziar espia zen Amadee François Frezierek ezkutuan ekarri zituen 1714an. Britainiako Bresten sortu zituzten 1766an gaur salgai izan ohi diren marrubi tzarrak edo baratze marrubiak, quelguena eta AEBetako Virginia marrubia (*Fragaria virginiana*) hibridatuta.

Virginiako marrubia, izatez, gure mailukia edo marrubi basaren tankerakoa da. AEBetako Virginia estatutik omen dator, baina estatu ugaritan topatu zuten, baita Kanada hegoaldean ere. Irokese bere mitologian dute, eta, Ashley Dayk bere *3 Sisters to Invite to Thanksgiving* horretan dioenez, marrubia Ama Lurraren bihotzetik sortu omen zen, hura Sapling eta Flint bere bi seme bikiezek erditzerakoan hil zenean.

Ameriketako hego eta ipar muturretako kulturetan marrubiak garrantzi handia du. Iparraldean bezala, marrubi sasoi berria hasten denean, Txileko partean ere makina bat ospakizunetan goreszten dute.

Gurean marrubiak izen ugari du, gure arbasoek ederki ezagutu eta baliatuko

zuten arrasto bizia: marrubi eta mailukiz gain arrega, arregatze, amarrugi, anube, maguri, mahali, mailubi, maraguri, marabio, maraburu, maranburu eta maramo behintzat bai. Eta ospakizunik ez al dugu? Beti gutxietsi izan ote dugu? Jean Martin Hiribarne azkaindarrak 1858an idatzi zuen *Euskaraz Eguia* liburuan honela dio: “Lurrari darraizko zuhamu, yende eta herriak; arregan bizi dire marmalo osteak. Goran bezainbat bizidun bada lurpean”. Arrega edo marrubia ez da saguzarraren eguerdiko doministikua.

Joxepak behintzat begiko zituen; Lasturko Ugarte etxetik Astigarragako Errekalderra etorri zen Joxepa Agirregabiria Zubimendi, eta marrubiak saltzera eramaten zituen Donostiara. Hala esaten omen zien etxean marrubia biltzen zutenei: marrubia kantari bildu behar da. Ixilik arituz gero marrubia jan eta jan; kantari ezin jan!

Orain eta hemen ere marrubiak etorri direla ospatzea ere txarra al da? Ingurukoak hautatu ordea, ttiki, goxo eta bixiak, eta utzi urrun ezezagun batetik ekarritako marrubi tzar gordin zakar horiek. ●

BIEZKO

“BASO JANGARRI TXIKI BATEKIN HASI GINEN, BAINA KAOS GEHIAGO NAHI GENUEN”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urteak daramatzate Atxondoko Biezko baserrian bizitzen eta lanean Aner Garitaonandiak eta Oihane Lekunberrik. “Kaletarrak ginen gu, nik enpresa eta turismo ikasketak egin nituen, baina mundu hori ez zitzaidan gus-tatzen...”, azaldu du ekoizleak. Lekunberrik, ordea, ingurumen zientzietako ikasketak eta agroekologiari eta ekologia politikoari lotutakoak egin zituen Katalunian, eta jarduera horri ekiteko gogoz bueltatu zen handik. 2007an hasi ziren ortuan ekoitzitako barazki ekologikoe-kin otzarak egiten. Ekoizpena nekazal turismoaren jarduerarekin uztartzen dute egun, eta azpimarratu dute apaltasunez ari direla eta ikasteko asko dutela oraindik.

ADMINISTRAZIOAREN TRABAK

Hasieratik ari dira eredu ekologikoan Biezkoko kideak, eta animalia-trakzio bidez lantzen dute lurra, astoa lagun dutela. Otzaretarako barazkiez gain, fruta arbolak ere landatu dituzte urteotan: sagarrak, intxaurrak, okaranak... “Guztiak nahasian sartu ditugu, propio”, nabarmendu du ekoizleak. Sagar zukua eta bestelakoak egiten dituzte horiekin, eta, Lekunberrik, gainera, sendabelarrekin ere egiten du lan: krema, kosmetikoak, fito-ginekologia eta abar.

Urte askoan arrautzak ere ekoitzi dituzte, baina administrazioak jarritako trabek jarduera etengabe zaildu diotelat salatu dute: “Estatuko arrautza ekoizle txikiak izan gara azken hamabost




urteotan, baina iaz baja eman genuen, administrazioarekin izandako arazoengatik”. Haiena bezalako ekoizpen txikiei laguntza baino, eragozpen eta trabak gehiago jartzen dizkietela diote. “Triste da administrazioetik behin eta berriz eragozpenak jartzea”.

NEKAZARITZA SINTROPIKOA

Urteotan, pausoka-pausoka, nekazaritzako sistema eta elementu berriak aplikatzen joan dira Biezkon, eredu bioanitzago baten alde. “Duela 15 urte inguru hasi ginen baso jangarriarekin,

Martin Crawforden teknika arabera”, azaldu du Garitaonandiak. Gerora, eta uholde handi xamar batzuk izan ondoren, baratzeko hidrologia keyline diseinuarekin lantzen hasi ziren, ura lurretan mantsa joan zedin. “Hor hasi ginen ilara eta kanal diseinuak egiten, baratzea kurbekin lantzen, eta kurba horietan zuhaixkak eta zuhaitzak landatzen...”, azaldu du ekoizleak. Esperimentu moduan hasi ziren, eta, erdi oharkabea, zuhaitz, zuhaixka eta landare bete zuten ingurua.

“Duela hiruzpalau urte, berriz, nekazaritza sintropikoaren berri izan genuen, eta, konturatu ginen, egiten ari ginena nahiko antzekoa zela”, esan du. Permakulturarekin elementu asko partekatzen ditu nekazaritza sintropikoak. “Zuhaitz eta landare dentsitate handiak sartzen dira baina ilaraka. Azkar hazten diren arbolak ere erabiltzen dira, gero horiek moztu eta lurrera botatzeko, lurtean usteltzen uzteko, ondo eta mikroorganismoak erakartzeko...”. Azpimarratu dute, dena den, haien sistema hankamotz dagoela; gaizki egindakoetatik ikasi duten bezala, oraindik hobetzeko asko dutela. Permakulturarekin eta biodinamikarekin egin bezala, ikasten eta sakontzen jarraitzea dute erronka eta asmo. “Agroekologia guretzat Galeanoren utopia modukoa da: inoiz iritsiko ez garen horretarako bidea”. ●



Rafah: 4.000 urteko hiriaren zatiketa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Egipto, K.a. 1303. Seti I.a faraoiak Gaza eta Siria inguruan egindako kanpaina militarren berri jaso zuten idazkun batean. Inskripzio horretan lehenengoz aipatu zen Robihwa herria. Egiptoarrek hala esaten zioten, asiriarrak Rafihu, greziarrek eta erromatarrek Raphia eta arabiarrek, aldiz, Rafah deitu zioten.

Gazako zerrendaren hegoaldean, Sinaiko basamortuaren sarreran, kostalde mediterraneoan, interes handiko kokapena zeukan Rafahk. Tokiko merkataritza eta nabigazio gune garrantzitsua izateaz gain, gatazken eszenatoki ere izan zen.

Rafahko gudu garrantzitsuenetakoa K.a. 217 urte inguruan izan zen; Egiptoko errege Ptolomeo IV.ak Antioko III.a Siriako enperadorea mendearen hartu zuen orduan. 120.000 soldadutik gora eta ia 200 elefante borrokatu ziren gudu zelaian eta, horrenbestez, Antzinaro klasisikoko gudurik handienen artean dago. Bakea sinatzeko sisiar enperadore garaituaren alaba Kleopatra Sira garaiaren semearekin, Ptolomeo V.aren ezkondu zuten. Ezkontza Rafahn bertan egin zuten.

Gurutzaden garaian, XII. mendean, hiria guztiz suntsitu zuten eta bizirik irten zirenak ihes egitera behartu zituzten. Otomandarrek eremua kontrolpean hartu zutenean Rafahk ez zuen iraganezko distira berehala berreskuratu. Otomandarrentzat basamortuaren ateetan zegoen posta geltoki soila izan zen.

Garrantzia galdu arren, hurrengo mendeetan gudu zelai odoltsua izango zen Rafah behin baino gehiagotan. Esaterako, Napoleon Bonaparteren ejertzitoak XVIII. mendearen amaieran suntsitu zuen, Egipto eta Siria konkistatzeko kanpainen.

SIONISTAK ETA ZATIKETA

XX. mende hasieran hainbat erakunde sionistek inguruan lurak lortzeko saiakera egin zuten, juduek birpopula zitzaizten, baina otomandarrek planari uko



Seti I.a Egiptoko faraoiak kanpaina militarrek egin zituen Gazako zerrendan eta orduko inskripzio batean, Rafah herriaren izena idatziz jaso zuten lehenengoz.

egin zioten. Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren, Otomandar Inperioa desagertu eta Rafah britainiarren kontrolpean zegoenean, sionistak berriro saiatu ziren horretan, baina britainiarrek ere ez zuten ekimena onartu.

Bigarren Mundu Gerran britainiarren base militarra izan zen Rafah eta horrek lan bila zebiltzan musulman asko erakarri zituen Palestinako beste hirieta. Baina 1948an Israelgo estatua sortu zenean, hiria egun duen izaera hartzen joan zen; zehazki, 1949an ireki zuten Rafahko errefuxiatu eremua. Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren (UNRWA) arabera, sortu berritan Rafah "Gazako zerrendako errefuxiatu eremu handiena eta populatuena zen".

Egiptoarren kontrolpean egon zen hiria 1967a arte. Sei Eguneko Gerran israeldarrek Sinaiko penintsula eta Gazako zerrenda osoa okupatu zuten, Rafah barne. Egiptoarrek Sinai berreskuratzea lortuko zuten 1982an. Baina bost urte

lehenago, 1977ko Camp Davideko bake akordioetan ez zuten Rafah berreskuratu, ez osorik behintzat. Camp Daviden marraztutako Egipto eta Israelen arteko muga hiriaren gainetik pasatzen zen. Hesi batek bitan zatitu zuen hiria. "Erdibitutako etxeetan bizi direnek zer jurisdikziotan bizi nahi duten erabaki beharko dute" idatzi zuen orduan Janet Hawley kazetari australiarrek, "eta etxeko atea aukeratutako aldean zabaldu beharko dute". Ehunka familia zatitu zituen hesia zabalduz joan zen, Philadelphi korridorea izeneko lerro desmilitarizatu sortuz.

Azken hamarkadan Egiptoko agintariek hesiaren inguruak despopulatu eta milaka eraikin bota dituzte, Egiptoar aldean korridorea zabaldua. Hesiaz bestalde, aldiz, azken hilabeteetan, Rafahko populazioa izugarri hazi da; UNRWaren arabera, Israelen azken erasoak baino lehen 280.000 palestinar bizi ziren hiriari, milioi eta erdi inguru pilatzen dira orain. ●

LURRA HERRIARI DEIKA



Moda kontuez ere ulertzen dugu

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Chanel edo Versace baino merkeagoa seguru, ekologikoagoa ere ziur, aurtengo udaberri-udako moda markatuko du ARGIAk. Tendentzia izango diren koloreak aukeratu dituzte diseinatzaileek, *late* tonuak. Gordin naturala eta kafesne kolorea, alegia. Brontzeatutako beso-bisaientzat esker onekoak izango zaizkigunak. Ione Larragoren ilustrazioa duen bilduma aurkeztu berri dute; bi kamiseta eta aldarri bakarra: Lurra Herriari Deika.

Maiatzaren 11n ospatutako Udaberriko Lurra Taupaka festa aprobetxatu dute arropa berriak erakusteko. Laborantza ekologikoa sustatzen duen Biolur elkarteak Amillubi proiektuaren baitan Iraetako (Zestoa, Gipuzkoa) Amilibia baserrian egindako ospakizunean. Amillubitar da ARGIA ere, proiektuarekin bat egiten du eta komunikazio lantaldean eragile modura ari da parte

hartzen, elikadura burujabetzaren eta lurra babestearen alde.

LEHENAGOTIK DATORREN ELKARLANA

Lurra Herriari Deika ekimena da Biolurrek eta ARGIAk elkarlanean aritzeko sortutako leloa. 2020an du jatorria proiektuak, konfinamendu garaian baratzera edo azokara joateko jarritako debekuen gainetik piztu zen su txiki hartan. Orduan hasi ziren agroekologia mugimenduan zebiltzan zenbait eragile batzeko saiakerak eta hor du sorburu gerora Lurra Herriari Deika izendatu-ko zutenak. “Nekazaritza guztia ez da berdina”, azaldu zigun duela lau urte Mirene Begiristain taldeko kideak eta hala jarraitu: “Genero harremanak lantzen ditugu, baserritarren burujabetza dakarten produkzio moduak (makinari-rikiko, pestizidekiko, petrolioarekiko menpekotasuna moztea bilatuz), langi-

leen eskubideak (migratzaileen egoera nekazaritzan ez dadin esplotazioa izan), ingurumenarekiko errespetuzkoa izatea... Balio izan digu eztabaida hauek ere jendarteratzeko, mahai gainean jartzeko ze nekazaritza eredu bultzatu eta egin nahi dugun”. Horretan dihardute eta Amillubi pauso bat gehiago da. ARGIAk ere bere alea jarri nahi du bide honetan eta sinetsita segiko du lanean.

Hirugarren diseinua da Lurra Herriari Deika lemarekin egindako kamiseta berri hauena. Ione Larrago ilustratzailea Biolur martxan jarri zuten lauzpabost familietako bateko alaba da eta ondo baino hobeto islatu du aldarria. Kamiseta eskuratu nahi duenak baditu aukerak: azoka.argia.eus webgunean, Amillubi proiektuaren herriz herriko aurkezpenetan edo azoketako Biolur kideen mahaietan. 22 euro ordainduta, egin bat Amillubi eta ARGIA proiektuekin. ●

OPARO DATOR ZIBURUKO

5. LIBURU ETA DISKO AZOKA

Ekainaren 1ean izango da Baltsan elkarteak eta ARGIAk elkarlanean antolatzen duten euskara hutsezko azoka. Aurten 41 argitaletxe izango dira bertan (inoizko gehien) eta egitarauan orduerdi izango da ekitaldiren bat musikaz eta literaturaz gozatzeko: sei liburu aurkezpen, lau kontzertu txiki, haurrentzat ikusgarria, bertso-komikia, umorezko bakarriketa... Aurtengoan Daniel Landart izango da omendua eta Arantxa Hirigoien antzerkigilearekin arituko da elkarriketan *Zubiburu* mahai-inguruan.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA



"Euskara ala ezkara"

Aurtengo azokaren aurkezpenean, irakurketa hau plaza-ratu dute antolatzaileek (Baltzan elkarteak, maiatzaren 7an):

“Euskarak egiten gaitu herri, eta kulturak herri bizi. Beti izan dira historian euskalgintzan eta herrigintzan engaiatu direnak. Eta ez dira guti izan Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan bide hori hartu dutenak, etenik gabe, mendez mende.

Iparraldeko Eleak Xabier Monasteriok paratu liburua lekuko: mugaz honaindian ekarpen handia egin zaio euskal literaturari (hemen sortu zen) eta, Lapurdin bereziki, literatur tradizio handia izan da. Mendeak zeharkatu dituen euskararen aldeko kate horren katebegi bat baizik ez gara eta guk ere, xumeki, ekarpena egin nahi diogu gure mintzairari.

Arrazoi gehiagoz kontrako haizeek azkarki jotzen gaituzten honetan: ezin delarik Beskoitze batean ikastola bat eraiki, azterketak euskaraz pasatzeari frantses administrazio kolonialak uko egiten diolarik, gu lokarrarazteko eus-

kara perfusio pean atxikitzen dutelarik agoniara ekarri duten horiek berberak, behin eta berriz auzitegiek EAEn euskararen aurkako epaiak hartzen dituztelarik, Nafarroan euskaraz ikasteko eskubidea nafartar guztiei bermatua ez zaielarik eta administrazioan alemanera bezalako hizkuntza jakitea gehiago baloratua delarik bertakoa, euskara, jakitea baino...

Nahi beste luza daiteke zerrenda, baina okerrrena da, jokaldia borobiltzeko, itzulipurdi dialektiko batez ikatza zuri bihurtzen dutela euskaraz bizi nahi dugunoi zapaltzaile eta diskriminatzaile izatea leporatuta: eskubidez gabetutako hizkuntza gutxiagotua hizkuntza nagusi kolonizatzaile guztiz ahalduen diskriminatzaile! Biktima borroero: ausartu behar zen eta ausartu dira!

Euskararen berreskurapenerako eskoletan murgiltze sistema nola (ezagutza hedatzeko), hala ditugu baitezpada-koak jendartean ere murgiltze guneak (erabilpena indartzeko): arnaguneak, beste hizkuntzen interferentziarik gabe euskara nagusi den une eta lekuak, kalitatea sortu eta transmititzen dutenak, euskaraz aritzeko aisetasuna, gogoia eta parada ematen dutenak, hiztun osoak

moldatzen laguntzen dutenak haien komunikazio gaitasuna sendotuz.

Xede horrekin sortu genuen Ziburuko Liburu eta Disko Azoka, gure hizkuntzak aberatsak eta anitzak dituen sorkuntza, literatura eta musikagintza plazaratuta euskara ikasten duen edo dakienari aukera emateko egun oso batez harremanak, elkar trukeak, gogoetak, eztabaidak, ezagutzak euskaraz lasaitasun, normaltasun eta naturaltasunez bizi ahal izateko, deus azaldu, justifikatu edo itzultza behartua izan gabe, estres linguistikotik urrun, goxo eta atsegin.

Beraz bai, euskara ala ezkara: euskara hutsez bete dezagun plaza!

"Euskara ala ezkara" lema Gotzon Garate (1934– 2008) idazleak asmatua da eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak bertako Udalarekin urtero euskarari buruzko topaketak antolatzen ditu Garateren omenez lema horren pean. Erabiltzeko baimena eskatu diete, "eta pozik eman digute, haren mezua Euskal Herriko leku gehiagotara hedatzen laguntzen badu", adierazi dute antolatzaileek. ●

Ziburuko plaza euskarak hartzen du egun oso batez, ekaineko lehen larunbatean. Goizko 10:00etan emango zaio hasiera egunari eta euskarazko letren munduan ekarpena egin duen pertsona bat omentzen da. Aurten Daniel Landarten lanari egingo zaio aitortza –ondoko orrietan duzue Jenofa Berhokoirigoinen bere ibilbideaz egin dion elkarriketa– eta *Zubiburu* mahai-inguruan parte hartuko du Arantxa Hirigoiaren antzerkigilearekin batera.

Irekiera ekitaldi horren ostean zabalduko ditu ateak azokak eta Euskal Herriko hainbat txokotatik bertaratu-ko diren euskaltzaleek hor izango dute aukera euskara hutsezko liburu eta diskoak deskubritzeko eta egileekin hitz egiteko. Aurten inoiz baino argitaletxe eta diskoetxe gehiago topatuko ditugu plaza osoa hartuko duen kar-

paren azpian: 41 hain zuzen ere –36 izan ziren iaz–. Horietatik 9 lehen aldiz izango dira Ziburuko azokan: 3 diskoe-txe edo autoekoizle, 2 aldizkari eta 4 liburu argitaletxe. Argitaletxe denen artean 120 metro erakusmahai beteko dituzte, orain arteko neurri luzeena –iaz 112 metro izan ziren–.

2024an argitaratutako uzta izango da protagonista egunean zehar, Herriko Etxearen parean horretarako egokituko den gunean egingo diren aurkezpenetan: *Mattin* Martiarenak *Irritaia* komikia aurkeztuko du, Yolanda Arrietak *Etxe bat norberarena* saia-kera, Idoia Torregaraik eta Zaldieroa-k *Mikroipuinak* ipuin ilustratua, Eider Behobidek berak itzuli duen Mohammed El Kurd-en *Rifqa* liburuak, Mikel Etxaburuk *Manttalingo alaba* poema liburuak eta Bea Salaberrik *Mesfida zai-tez* nobela.

Plaza, berriz, musikak hartuko du, egunean zehar egingo diren kontzertu txikietan: Lumi, Bloñ, Hegazkin eta Pelax entzun ahalko ditugu zuzenean.

Haurrek ere izango dute beraientzako gune eta unea: 11:00etan Iturri Zaharrean haurrentzako ipuin kontaketa egingo du Kiribil konpainiak. Eta hitzekin zein irudiekin jolastea maite duten adin guztietako belarri zein begien gozamenerako, 12:30ean *Zirriborroka* bertso eta marrazki dema egingo dute *Mattin* eta Amane Apalategi marrazkilariek eta Maddi Ane Txoperena eta Maddi Sarasua bertsolariek. Bazkalostea girotuko du 15:30ean *Txikik, 40 urte eta maldan behera niek* bakarrikzketarekin.

Zuzeneko emanaldien amu horiei denei mizkin egiten dietenentzat, hor dago Ziburuko hondartza, eskuratu berri izango ditugun liburu zein diskoak gozatzeko. ●



Poeta naizen? Poesia sentimenduak dira, besteek erantzun beharko diote horri

DANIEL LANDART
KULTURGILEA

Elkarrizketa bat papereratzekoan galtzen dira isilune eta esku keinuak. Pena da. Daniel Landart entzuten ari zela gogoeta hori zeukan kazetariak, eta gauza bera pentsatzen zukeen argazkilariak ere, ikusirik ondoko egunean esku keinuen argazki andana bidali ziola kazetariari. Ziburuko Azokatik Baltsan elkarteak eta ARGIAk bideratuko dioten omenaldiaren bezperan bildu gara kulturgile donoztiritarraren saloian, liburu artean, 60 urtez euskal kulturari ekarritakoaz xeheki solastatzeko.

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN  GARI GARAIALDE

Elkarrizketa eskaerari baietza ematerakoan abisatu gintuzun: beharbada sukarrak gaina harturik ez zinela horretarako on izanen. Ontsa kausitzen zaitugu gaur.

Bularretatik eri sortu nintzen eta bizi guzian hori ukan dut. Zahartzean barrena, gehitu zaizkit beste eritasun batzuk, zaharren eritasunak... Behar dut biziki kasu eman, erran nahi baita ez naizela gehiago ateratzen ikusgarrientzat. Goizeko seietan jeikitzen naiz eta arratsaldeko seietatik goiti biharamunean naiz, ez naizelako ateratzen ahal gehiago.

Ikusgarriak eskas dituzu?

Dudarik gabe. Bederen 40 urtez hain-

beste ikusgarri eta kontzertu entzun ondoan, eskas ditut. Duela 50 urte telebistaz trufatua, orain kontexko naiz telebistaren bitartez ikusten ahal ditudalak bertso saioak eta beste anitz gauza. Baina ni baino gaizkiago direnak badira, beraz zer nahi duzu, hola da.

Ez zara izan Errobi-ren 50 urteen kari emandako kontzertura beraz.

Ez dut gehiago musika entzuten ahal, buruko mina ematen dit. Egon nintzen entsegu batean Senperen, doi-doia agurtzen, eta nire buruaz kontent nintzen joan ahal izan bainintzen. Oren bat edo egon nintzen, baina ez naiz kapable kontzertu guzian egoiteko. Kontent naiz izanik.

Duela 60 urte hasi zinen idazten, Hilak hil antzerkia plazaratuz.

Hori da.

60 urte pasa direla, segitzen duzua idazten?

Guti, kasik fitsik, deus garrantzitsurik ez dut egiten. Baina baditut hala ere gauza batzuk... nola erranen dut? Abiatuak. Eman dezagun, titulua liteke *Bidelagunak*. Ezagutu eta markatu nauten eta lagundu nauten jende batzuek egin artikulak edo aipamenak liratzeko. Hori nahi nuke bukatu.

Poesiarik ez duzu gehiago idazten?

Ez, poesiari ez dut egiten.



Langileria, gazteez hustuz zihonan Ipar Euskal Herria, aberria, baita eguneroko bizia eta maitasuna ere. Horiek izan dituzu inspirazio gai. Gaur egun zerk zaitu kezkatzen ala hunkitzen?

[Isiltasuna]. Joxean Artzek erran zidana: "Ez dut nehor aurkitzen espiritualitateaz hitz egiteko". Erlisioenez, geroaz... Begiak itxiko dituztalarik, zer izanen da? Horretaz gogoeta anitz-anitz egiten dut.

Hiltzeak izutzen zaitu?

Ez, baitezpada. Duela bi urte egon nintzen biziki gaizki, hiru hilabete pasatu nituen ospitalean eta arta-etxe batean. Uste nuen [isiltasuna eta eskuekilako keinu bat] baina ez zen tenorea. Ez nuke sobera sufritu nahi, hori da nire kezka bakarra. Eta burua ez galtzea.

Lagunen artean aipatzen duzun gaia da?

Ez hainbeste. Baina horretaz ez bada ere, mintzo gara. Baditut bisitak erregulariki eta aipatzen ditugu oraingo gertakariak, pasatzen denaz jakinean egoten entseatzeko naiz. Oraino interesatzen naiz, baina badakit geroz eta gehiago ez naizela interesatuko. Horrek izutzen nau.

“ ”

Begiak hetsiko ditudalarik zer izanen da? Horretaz anitz gogoetatzen dut

Interesik, eta beraz, loturarik gabekoa bihurtuko zaizulako bizia?
Ez dakit.

Biziaren errepasoa eginez, liburuei diezun lotura nonbait zure ahuldade horri zor diozu, ttipitan ohean iltzaturik zinela euskarazko testuak irakurtzen zizkizulako amatzik.

Dudarik gabe. Azkenean eskerrak beharko nizkioke bihurtu eritasunari, bestela laborari izanen nintzelako gaurko egunean, aita hori nahi baitzuen eta ez niolako ezetz erraiten ahalko. Laborari eta kitto. Erdi eri nintzen eta ez nuen kolegioan segitu ahal izan, bi aldiz izan nintzen eta bi aldiz etxera igorri niduten. Xantza izugarria ukan nuen Charri-

ton apezak, eskolako zuzendaria zenak erran ziolako amari inprimaria batean aprendiz bat bilatzen zutela. Hartu ninduten eta inprimaria hari esker, alde batetik, lau urtez joan ahal izan nintzen pleumologo baten ikustera, eta bestetik, beti irakurtzen ari nintzen. Esku langilea izan naiz, baina ez edozein esku langile: egunean zortzi oren pasatzen nituen nire lanean irakurtzen, eta nahi ala ez, zerbait gelditzen da. Gero, gazte-gaztetatik ukan nuen xantza Enbata sartzeko -bo, xantza ez, hala gertatu zen-. Nire eskolak izan dira, girstino bezala MRJCn [Baserri Guneko Gazteria Girstionoa-ren Mugimendua] ibili izana apezekin eta lagunekin gogoetatzen, gero lanean berean beti irakurtzen ari izana eta gazte-gazterik sartu izana Enbata abertzale mugimenduan. Hor aurkitu nituen Jakes Abeberry eta Jean Louis Davant, enetzat maisu handi-handia izan dena, anitz ikasi dut harekin Enbata eta gero ere, teatroaren bitartez. Gazte-gaztetatik hasi nintzen teatroan Mugerren eta horretan segitu nuen hogeitaz, asteburu guzian horretan pasatzen nituen.

Hautzaroen gelditu gaitezen pixka bat. Euskara besterik ez zenuten entzuten etxean, baina hala ere frantsesat zuten berena zure burasoek.

Gure aita-amak frantsesak ziren, ez ziren euskaldunak. Nik Enbatari edo Enbatakoiei esker nuen euskaldun izatearen kontzientzia gure aitamek ez zuten. Frantsesak ziren, baina gero gure herrian bi pertsona ziren bakarrik frantsesez mintzo, eskola publikoko errieta eta errieta, beste guzi-guziak euskaldunak -euskara zekitenak- ziren eta euskara zen gure hizkuntza bakarra. Nire arreba kondatzen zidan bere seme-alabak Hazparneko kolegiara joan zirelarik errepika bat bezala egin behar izan zutela, irakasleari frantsesez mintzatzeko gisan. Hizkuntza arrotza zen frantsesa. Telebistarekin gauzak aldatu ziren.

Eskolak ere izan zuen bere eragina. Eskuz esku zebilen Anti-a emankorra izan zen.

Baina eskolarteakoan, auzokoekin oinez, euskaraz ari ginen eta etxean berdin. Sei oren pasatzen genituen eskolan, hiru goizean eta hiru arratsaldean, baina horretaz kanpo euskaraz ari ginen. Etxeetara telebista sartzearekin sartu zen frantsesa. Telebistak oraino gehiago

frantsestu gaitu.

Etenik gabe ttipituz joan da erabilpena eta ez dugu gehiago plazako hizkuntza.

Baina kontzientzia badugu, duela 60 urte ez zena edo zenbait intelektualek baizik ez zuten kontzientzia hori. Ikargarriko mugimendu bat izan da eta euskaraz mintzo garenak guti baldin bagara ere, atzematen dut ikargarriko indarra badugula. Nahiz eta zaila izan, horrek ikargarriko esperantza ematen dit.

“ ”

Esku langilea nintzen, baina ez edozein esku langile: egunean zortzi oren pasatzen nituen ene lanean irakurtzen

Urtero 2.000 gazte Ipar Euskal Herriatik joatea zen zure ordungo kezka. 60 urte berantago, urtero 3.000 herritar instalatzen dira Ipar Euskal Herrian, horietan gehienak dirudunak eta frantsesak.

[Isiltasuna] Nire sorterrian laborari etxe bat milioi bat eurotan saldua izan da. Ez dakit, ni orain pixka bat iraganean bizi naiz. Baina beharrik hor direla Bizi, Alda eta horiek guziak. Jadanik 1921ean Jean Barbier apezak aipatzen zituen kanpotarrek eraikitako etxeak, "satorrak" deitzen zituen eta Mixel Labegueriren *Aita zer egin duzu gure lur maitea? Kanpo-koari saldu, oi dohakabea!* ere hor genuen 1961ean. Dirua.

Diruaren gaitza.

Ez dira berri onak gure Euskal Herriarentzat. *Gauden gu* [1967an plazaratu zuen olerki baten izena]... gauden gu, bai baina...

Duela 60 urteko girora itzuliz, Enbata-koak ez zineten begi onez ikusiak. Enbata zikinak zineten.

Inprimarian erdal itsasoa zen, bakarra zen euskara pixka bat bazekiena. Heldu ziren bi bezero, bat Jean Hiriart-Urruty, gero euskaltzain izanen zena eta Pierre Narbaitz bikario jeneral zena, apezpikute giko kazetaren zuzentzera eta haiekin euskaraz ari nintzen. Hori horrela, le

petit basque [euskaldun ttipia] deitzen ninduten inprimerian. Baina batek jakin zuelarik Enbatan nintzela, segidan *sale basque* [euskaldun zikina] deitu ninduen. Beti eta beti *sale basque... Comment vas-tu sale basque?* ["Nola zara euskaldun zikin?"] eta holako. Gizon hori boterea zuen bat zen, ez zen edozein langile sinple. 1968an *Matalas* antzerkia eman genuen Baionan eta ni ere indartu bainintzen, erran nion horrela segitzen bazuen ez nuela gehiago agurtuko. Hartan amore eman zuen. Egia da zaila zela. *Enbata zikinak* ginen denak. Lehen militanteak baiginen ere. Beste alderdietan ez zen halakorik, bozkatzan zuten honen edo haren alde, eta afixak kolatzeko pagatuak ziren. Hazparnen gizon batek galdatu zidan Ximun Haranek zenbat pagatzen ninduen! Errotak zilatuak, mehatxuak, kazetak lurrera botatuak... zaila zen. Gaizki ikusiak ginen, baina hala ere bazuten beldurra. Beldurra eta errespetua.

Nolaz?

Ez dakit nolaz, baina beldurra bazuten.

Zenbat urterekin egin zinen Enbatakoa?

Hamazazpi urterekin.

Idazten zenuen *Enbata*-n?

Ez. Nire lehen lana izan zen *Enbata*-ren plegatzea. Han ezagutu nuen Estitxu kantaria, orduan Estibaliz deitzen zena. Hastapenean hilabetea behin agertzen zen, baina gero aste guziz egiteko ideia ukan zuen Abeberryk. Zazpi-zortzi lagun biltzen ginen, multzo ttipi-tti-

piñoa zen. Nik jotzen nuen kazeta gure inprimerian.

Hasi berri horretan non idazten zenuen?

Herria-n idazten nuen, *Etxea*-n, emazte katolikoen agerkaria zen, [Pierre] Narbaitzek kudeatzen zuena, *Gazte*-n, [Jean] Hiriart-Urrutyk zuzentzen zuena; eta *Pan-Pin*-en ere haurrentzako aldizkarian, Joseph Camino zen arduratzen.

Poesia zenuen zuk hautatua.

Baina ez nekien momentu hartan. Kazetariak baziren gure inprimerian, eta nire buruari desafio bat botatzen nion: kapable ote naiz zerbaiten idazteko? Nahi nuen zerbait frogatu. Enbatan entzuten nituen ideologia horretakoak eta senditzen nituen bezala, nire hitzekin nahi nituen ideiak zabaldu.

Poesia desafio gisa beraz.

Bai, nire buruari emandako desafio gisa. Gero, ikusi behar da maila... [irria]

Gabriel Arestik idazten segitzea gomendatu omen zizun.

Bai, hala da.

Nola oroitzen duzu momentu hori?

Ez nuen ezagutzen Aresti, ez nuen fitsik irakurrik. Miranderekin gauza bera. Mirande goiti eta beheiti, nik hil arte ez nion deus irakurri, gero irakurriko nituen *Haur besoetakoa* eta. Hemengo intelektual batzuek, apez batzuek eta beste aldeko batzuek irakurtzen zuten,

baina bestela, Mirande nehork ez zuen ezagutzen. Nik izkiriartzen nuen, baina ez nituen ezagutzen idazleak.

Nor irakurtzen zenuen?

Biziki liburu guti ateratzen zen denboran. Gero hasi ziren bai, [Ramón] Saizarbitoria eta horiek. Baina guti irakurtzen nuen.

Eredurik gabe hasi zinen beraz.

Hori da, itsumandoka.

...

Edo ez... banituen erlisione liburuak [irria], ehun sainduen hori [Basile Joannateguyren *Ehun bat sainduen bizitza*], [Jean] Hiriart-Urrutyren ipuin liburuak, [Piarres] Lafittek publikatu *Zer eta zer...* horrelako batzuk, baina guti. Iratzeder ere. Iratzederrek biziki markatu nau. *Poeta* hitza ematen ahal bada, dudarik gabe, Iratzeder bada poeta. Baina haren eta nire artean badena da lehen poesia izkiriatu aitzin 200 kantu gogoz ikusiak zituela. Nik aitaren kantuak entzunak nituen eta ez nekizkien gogoz. [Irria]

Gaurko literatura eta poesiagintza segitzen duzu?

Guti. Gutti irakurtzen dut, zorigaitzez.

...

Pixka bat gelditua naiz iraganean, Artzerekin eta.

Ontsia zira han iraganean?

Bai.





Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezlaigo industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

Tel 948 13 26 97
lua@luark.com



aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behe / Donostia
943 005 680 aholku.eus

**Itsumandoka idatzitako poesia
batzuk kantu bihurtuko ziren
ondotik. Kantu herrikoiak
gainera, leku anitzetan bozkarioz
kantaturikoak. Besteak beste, Zure
begiek Laboak kantatzen zuena.**

Giroa zen horrelakoa; guti ginen, biziki guti. Mikel Laboraren ikusteko parada ukan nuen Donazarren. Orduko lehen kantaldiak ziren, eta orduan mugitzen ziren pertsona guziak pertsonalki ezagutzeko xantza ukan dut. Xantza ukan dut Mikelek *Zure begiek* musikaturik eta kantaturik, gero Andderi [Duhalde] eta beste kantari batzuei buruzko atea ireki zidalako horrek. Baina erran behar da giroa halakoa zela –giroa edo egoera–. Hegoaldeko kantariak honera etortzerakoan beti problemak bazituzten mugan eta gauza bera hemendik haratekoan. Frankismoaren azken urteak ziren, ETA-ko errefuxiatuak bagenituen, hemen kontzientzia pizten ari zitzaigun... Hala geratu da. Hala gertatu zen, hala gertatu beharra zelako.

Errefuxiatuekilako harremana nolakoa zenuen?

Harreman estua nuen. Sostengatzen nituen eskupaperrak banatuz, afitxak kolatuz, manifestaldietara joanez, gose grebetara ikustera joanez. Enbatako militante gisa sostengatzen nituen. Bestalde, ostatz ostatu Pannecau karrikan barna ibiltzen nintzen haiekin, pertsonalki ezagutzen nuen andana bat, Xabier Elozegi, Mikel Urteaga ala beste. Dozenaka eta dozenaka baziren, ez errateko ehunka.

Mundu ttipi horren parte zinen.

Nik momentu batez abertzale guziak pertsonalki ezagutzen nituen, eta idazten zutenak ere berdin. Txillardegik irabazi zuen Txomin Agirre saria 1968an, afari bat eskaini zigun eta etorri ziren beste aldekoak. Artze horrela ezagutu nuen, Saizarbitoria lehenago ezagutua nuen, baina bai, afari horretan hogeit bat ezagutu nituen kolpez, eta batzuekin segitu nuen harremana. ARGIA-koekin ere bai: Antton Santamaria eta horiek etortzen ziren hilabeteen behin Iparraldera, eta ni joaten nintzen haiekin. Harremanak.

Biziak ekartzen dituen ezagutzez ari garela, zer da zuretzat laguntasuna?

Adiskide guti dut, lagunak baditut eta ezagun anitz. Lagunak duela 40-50 urtekoak ditut, uste dut azken 30 urte hauek ez dudala lagunik egin. Nire lagu-

“ ”

Lehenago teatroa egiten
zuten eskolan irakatsia ez zen
mintzairak irauteko

nak teatroaren edo Enbataren bitartez ezagutu nituenak dira gehienak. Laguntasuna: hain aspaldi ezagutuak honera etortzen zaizkidala kafea hartzera eta oraingo gauzetaz ari garela aspaldiko horiekin. Atxikimendua da laguntasuna, konfiantzia bat, eta tertulia.

Teatroak leku handia du zure bizian. Zergatik lotu zinen arte horri?

Abertzaletasunari lotua da. Enbataren baitan ikusten genuen gauzak antolatu behar zirela. Oroit naiz beti Jakes Abeberryk erran zidala: “Hik teatroa egiten duk, behar huke talde guziak bilduko lituzkeen elkarte bat sortu”. Ordura arte egiten zen teatroa apezek zuten kudeatzen, erran nezake kasik ekintza katoliko bat bezala. Hasi ginen, preseski abertzale batzuk (Marceline Alberbide, Pettan Elizalde...) biltzen eta gogoetatzten. Antzerkilarien Biltzarra sortu genuen. Lehen biltzar bat egin genuen 1966an Heletan, Teatroaren Eguna deitu genuen. Mezarekin hasi genuen, [Piarres] Larzabali galdetu nion predikua egin zezan, [Telesforo] Monzón etorri zen ere. Ondoko urtean Antzerkilarien Biltzarra osatu genuen Baigorri. Gure lau helburuetan zen Hegoaldekoekin harremanantzea eta hamar urte behar izan genituen Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea (EATB) osatzeko. Momentu hartan denak amaturrak ziren eta hasi ginen gurutzatzen hangoekin. Hegoaldekoak abertzaletasunetik eta zentsuraren pean ari ziren. Harremanik handienak ukan nituen Oiartzungo Intxixu taldearekin, gero Debako Goaz taldearekin ere. Hor mugimendu bat bazen, ni beti mugimenduan nintzen momentu hartan.

Zentsura dela eta, nola zeharkatzen zuen sare hori antzerkiak?

Konkretuki, 1971n eman behar genuen *Noiz?* Lazkaon. Jadanik, hango antolatzailleek testua igorri behar izan zuten Gobernadore Zibilari eta bi hitz aldatu zizkioten. Gaueko hamarretan emateko genuen eta arratsaldeko bostetan presuna baten aitzinean eman behar

genuen, ikusteko gauerako baimena ematen zigun. Azken momentua arte ez genekien, ez guk, ez antolatzaileek ezta jendeek ere. Presuna hura ez zen etorri, beraz ez genekien ezer. 1.200 jende bildu ziren. Etorri zen jendea, etorri! Baina etorri zen ez bat-batean teatrozale zirelako, baizik eta teatroa etortzea ekin-tza politikoa zelako. Lazkaoko Kemen taldekoekin lagun bilakatu nintzen eta eskertzeko izkiriatu nien *Etxe gabeak* antzerkia 1972an. Osoki debekatua izan zen eta egundaino ez da plazaratua izan. Gaizo inozentea ni, ez nekien zer zen zentsura! Kantaldietan gauza bera zen. Pantxoa Carrerek kondatu izan dit beti bazela beldurra.

Leku handia zuen antzerkiak Ipar Euskal Herrian. Gazte belaunaldi oso bat zen antzerkian murgildurik.

Bai, eta gainera, gai minberak aipatzen genituen, teatro engaiatu bat egin genuen.

Hastapenetik argi zenuen teatroa izan zitekeela ideia politikoak bideratzeko bide bat?

Enbatako ideologian argi zen hori. Bistan da, taldeetan baziren zonbait kontzientzia zutenak eta beste batzuk futiltzen zirenak, egiten zuten teatroa hunen edo haren laguna zirelako eta elgarrekin atzemateko.

Eta nolakoa zen zuen publikoa? Abertzale kontzientzia zuen?

Abertzale kontzientzia zuena minoria bat zen garaian. Beste edozein antzerki ikustera zihoana zen heldu zitzaiguna. Ez baitzen telebistarik! Garaian talde gehiago bazen, baina bakarrik bi aldiz ematen zuten antzerkia herrian. Aldiz gu hasi ginen *Matalas* obrarekin-eta, herrialde ezberdinetan ematen. *Bai ala ez?* antzerkia sei herrialdetan eman genuen 1970ean eta Lazkaora joan ginen 1971n, baita Parisera ere. Ordura arte herri bereko jendea elkartzen zen antzerki taldeetan, eta gu ideia bertsukoak ziren jendeen arteko taldeak osatzera pasa ginen. Aldaketa handia zen.

Nonbait entzuna dizut "euskal antzerkia huparaztea" zinuela xede. Ez zen bakarrik nire xede.

Ez. Pierre Larzabalek ere zioen euskal antzerkiak "heldutasuna" lortu behar zuela.

Larzabalek, baita Monzonek ere. Beharra bazen eta beharrik. Biziki inportan-



Daniel Landart, Piarres Larzabal apez eta antzerki idazlearekin batera. Argazkia: Daniel Velez

tea izan da euskaraz ere profesionalak izatea. Amaturrak inportanteak dira, baina beste herrialdeetan bezala behar ditugu profesionalak euskaraz.

Behar ditugu guretzat ala besteentzat?

Guretzat.

Libertimenduekin itzuli da berriz antzerki giroa herriko plazara.

Alde batetik, arrunt ttipitu dira lehen-goko herrietako antzerki emanaldiak (Armendaritzen, Makean, Aiherran...), baina bestaldetik, libertimenduak eta pastoralak hor ditugu eta biziki inportanteak dira. Zuberoak beti harritu nau, hainbeste gauza egiten da Zuberoan! Mixel Etxekopar bera zinezko mugimendua

da. Hortakotz, berriz jinez hizkuntzara, ez da entzuten baina hala ere indar handia badugu. Nik esperantza handi-handia badut kontzientzia baitugu.

Komediaz komedia Lapurdin eta Baxenabarren ikerketa, antzerkiaren 50 urteko historia plazaratu zenuen 2014an.

Biziki interesgarria da, eta ez da nik egin dudalako [irria]. Ageri da gu baino lehenago ere lan handia egin zela, eta zere-dakoa teatroa hautatu zuten: teatroa egiten zuten eskolan ikasia ez zen mintzairak irauteko; teatroaren bitartez irakurtzen eta gogoz atxikitzen baitzuten. Teatroak eta kantuek garrantzia handi-handia ukan dute. Kantua aipatzerakoan oroitzen naiz Garazin, Irisarrin edo ho-



lako herrietan, antzerkia eman ondoren afaria genuela eta orenak pasatzen genituela kantuz. Zoragarria zen! Hori bizitu dut. Orain isiltasunean, musikak buruko mina ematen didala... hola da [irria]. Bederen ezagutu dut eta bizitu.

Euskaldunok gure memoria eta genealogia nahiko idazten ditugu?

Uste dut baietz. Zinez herri bizi bat gara, indarra badugu. Herri bat gara eta urteak iraunen du horrek.

Idaztea, taularatzea ala zuzentzea, zer duzu gehien gustuko ukan antzerkigintzan?

Egia errateko, ez nintzen batere jokalaria ona. Izkiriatzea gustuko nuen, eta gero zuzentzea ere –zuzentzea hitz handia da, laguntzea–. Aldiz jendarmearena egiten nuen anitz. Talde amaturrekin hori da, batzuk badute dohaina edo erraztasuna, baina besteak tiratzen eta tiratzen, testua jakin gabe, ezin ikasiz! Pazientzia istorio bat zen, nik pazientziarik ez eta. Kolera handiak biltzen nituen, baina beste aldetik, merezimendu handia bazuten. Pasatzen nituen momentu onak. Ez dut damurik, orain badut zerbait kondatzeko. Kontent naiz hori guzia bizi ahal izan baitut eta inprimariako lan hartatik beste mundu batean sartu bainintzan. Uste nuen kulturaren profesionali sartzearekin hori oraino emendatuko zitzaidala, baina azkenean kulturaren egon naizen 20-25 urteetan ez dut liburu bakar bat izkiriatu.

Hori nolaz?

Sobera bilkura. Sobera gauza simple korapilatsuak bilakatzen zirenak. Erretretan sartu eta berriz hasi nintzen eta bost liburu egin ditut.

ARGIari eskainitako elkarrizketa batean horretaz mintzo zara eta ondokoa diozu: “Anitz ikusgarri ikusi nituen, eta ene konfiantza hauspotzeko partez amildu zitzaidan”. Berrira-ri eskaini berri diozun elkarrizketan ere diozu zure burua ez daukazula poetatzat. Zer zara, autoestimu gutiko gizona?

[Isiltasuna] Erran behar dut biziki herabea naizela eta denbora berean, ausarta. Egin dutana ahal bezain ontsa egin dut. Ahal bezain ongi izkiriatzea eta senditzen nuena erratea nituen helburu. Ez dut nire burua gutietsiko, ezta urguilutan sartuko ere. Azken finean, egin behar zelakoz egin dut, pixka bat apez misioneroek egiten zuten bezala. Euskaldun misionero bezala aritu naiz, beste anitz militante egin bezala. Erran behar dut hala ere, xantza izugarria ukan dudala nire antzerkiak emanak izan baitira, eta bizi izan baitut hori. Gero, balioa? Batzuei zerbait sendiaraziko die, beste batzuei fitsik. Poeta naizen ala ez? Batzuentzat bai, beste batzuentzat ez. Poesia sendimenduak dira eta besteek erantzun beharko diote horri. Ez da poesiaren izkiriatzea aski, batzuk hurbilago dira poesiatik, beste batzuk propaganda baten egitetik, gehiago misionario dira.



Nire kantuetan beharbada ez dut aski gibeletzapenik hartu, sobera gordinki izkiriatu ditut gauza batzuk. Baina militante bezala egin ditut anitz gauza.

Zuretzat nor da poeta gaur egun?

[Ezetz buruarekin]

Ez dizut hori galdetu behar?

Erantzunen dizut lehenagokoekin, hilak direnekin. Enetzat Iratzeder eta Artze. Baina, badira anitz. Irakurri ditudan poesia liburuetan batzuek zinez hunki egin naute, ez beharbada obra osoak baina poesia batzuk bai. [Gabriel] Aresti ere bai. Eta [Xabier] Letek, ze gauzak ez zituen izkiriatu!

1978an plazaratuko zenuen Aihen Ahula. Harrera ona ukan zuen?

Bai biziki. Hiru edizio ukan zituen. Biziki irakurria izan zen, ikastoletan eta eskoletan ere. Radio Côte Basque irratia bazen eta osoki irakurri nuen irratitik eta badakit entzuna izan zela. Hori bai, uste dut nire libururik irakurriena izan dela. Erran behar da garaian liburu gehienak apezek izkiriatuak zituztela. Jean Etxeparek aipatzen zuen aitaren beldurra-eta, baina liburu autobiografikoa egin izan duen lehena izan nintzen Iparraldean.

Etxekoek maitatu zuten?

Bai. Aitak ez zuen leitzen, beraz amak irakurtzen zion gora-gora, oheratuta. Amak erran zidan aita aipatzen nuen



zati bat ez ziola leitu. Haur denbora kon-
tatzen dut liburuan. Berantago berriz
hartu izan dut *Ahularen indarra* plaza-
ratuz 2011n. Adinarekin kanbiatzen
dira anitz gauza. Erran nezake, geroari
buruz segurtamen baino duda gehiago
dudan bezala, bizian ere gauzak aldatu
zaizkidala. Berriz hartu eta idatzi nahi
izan ditut pasarte batzuk eta biziko bes-
te zati batzuk ere gehitu dizkiet, inpri-
meriako 23 urteak, eman dezagun.

1994an plazaratu zenuen *Batita Haundia*. “Hausturaren liburua” titularra jarri zion eskainitako elkarrizketari *Egunkaria*-k. Haustura izan zen?

Ez dakit. Nork erran zuen hori?

***Egunkaria*-k.**

...

“Errespetuaren liburu bat da hau, maitasun handiz izkiriatu dudana eta agian gogoetagarria izanen da, gogoetak eginaraziz irakurleari. Behintzat, nik hori dut nahi”, zenion elkarrizketa batean.

Bueno, Iparraldeko liburuetan ager-
tzen ez zen gai bat aipatzen nuen.
Haustura ez nezake erran. Gogoeta-
garria zen garaian, baina gaur egun
aipatzen diren gaien artean sartu da
geroztik, gizarteratu den gai bat da.
Erran behar da erlijio katolikoaren
ikuspegitik giro biziki hertsu eta mu-
gatu batean bizi ginelako eta horrelako

gauzak ez ziren aipatzen ahal. Beraz
izkiriatzeko horrela gerta zitekeela eus-
kaldun familia batean...

Homosexualitatea aipatzen da *Batita Haundian*. Diozun bezala, ez zen batere ohikoa garaiko literaturan. Zendako hautu hori?

Gertatu baitzen inprimerian ezagutu
nuela norbait gizon batekin bizi zena.
Iduritzen zitzaidan inportantea zela
horrelako gai baten aipatzea. Liburuan
biziki bortitza da, erlijioaren boterea
hor baita, apezak galdatzen dio Batita
Haundiari seme bat apez bilakaraztea,
egindako adulterioaren pixka bat ezez-
tatzeko. Egia da gai eskandagarria izan
zitekeela, baina irakurtu zutenek ez zi-
daten fitxik erran. Horrela pasatu zen.

Bakardadean, bere bizia errepasatzen duen gizon zahar baten gogoetak, irakaspenak, doluak, aitorpenak biltzen ditu liburu horrek. Garaian ez zinen zaharra, orain zaharrago zara... Zaharra naiz bai! [Irriz]

Ados. Ariketa hori egiten duzuia zuk ere?

Iragana iragana da. Gehiago pentsa-
tzen dut gelditzen zaizkidan azken ur-
teei buruz.

Gaiez aldatuta, ohorezko euskaltzain ere izendatu zintuzten. Zer suposatzen du horrek?

Ontsalaz segitzea izkiriatzeko, biltzarren

segitzea. Baina ez naiz kapable. Niretzat
plazer handi bat izan da, eta berriz ere
erranen dut ez dakidala zinez merezitua
dudan, baina hori erabaki izan dute eta
eskertzen ditut.

Euskaltzaindia bada herri honen tresna bat. Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Hirigune Elkargoa, ere badira, baina Frantziaren esku ere dira. Bukatzeko, zure ikuspegia nahiko nuke ukan azken urteetan Iparraldeak lortu dituen egitura horiei buruz.

Euskal Kultur Erakundea ere. Uste
dut biziki inportanteak izan direla
mugimendu horiek eta borroka ho-
rien irabazteak –borroka ez, guduka–.
Guduka handiak izan dira, behar ukan
dugu anitz higitu, anitz indar galda-
tu da horien muntaketarako, baina
beharrezkoak ziren. Orain, horiek
izanikan ere, elkarteek egiten duten
lanak segitzen du eta segitu beharko
du. Bizi gireino eta gure ondotik jinen
diren belaunaldiak edozein instituzio
izanikan ere, beharko dugu militan-
tismoz aritu, militantismoak gaitue-
lako salbatuko. Badugu anitz egiteko
eta ez da sekulan irabazia izango. Se-
kulan. Beti gara lanjerrean, nahiz eta
batzuetan uste ukan irabazia dugula
edo hobeki garela. Militante izpiri-
tuan egon behar dugu. Zenbait aldiz
ahantzen dugu hori. Beraz, alde bate-
tik baikorra naiz eta bestetik, ikuspe-
gi hori ere badut. ●



Hitz gezidunak
Gaia: * Herri Urrats 2024

PILOTAN JOKATZEKO TRESNA ----- ZERGA	↓	MARKA LUZE ETA ESTUA ----- DONARIAK, GOLARDOAK	↓	EDADE	↓	GANBELA, UHASKA ----- EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA	↓	LEHERGAI EZAGUNA ----- ELEKTROIA	↓	AUTOMOBIL ----- ARTEGI	↓	BEGIRATOKIA ----- * HERRIA	↓
↓	→	↓		AITZAKIA, ESTAKURUA ----- BIGARREN MUSIKA NOTA	→	↓		↓		↓		↓	
KEZKATZE- KOAK ----- BARRUAN	→			↓				HITZ-MOTEL ----- NITROGENOA	→				
↓	→							↓		PIRATEN EDARIA ----- ZUKU	→		
BURDINOLA	ABANTZU, KASIK ----- LANTEGI	→							→			3,1416 ----- GUTXI JATEA	→
↓	↓		ZALANTZA						→	BIHARAMUNA ----- ARGI	→	↓	
ARABAKO KONTSU- MITZAILAEN ELKARTEA ----- EGOKI	→		↓						→				AGIAN, MENTURAZ
↓		AZKEN LETRA ----- ... GAINETIK, OROREN GAINEAN	→						→	NIREA ----- DUT (ALDE- RANTZIZ)	→		↓
KAMISETA MOTA ----- TOKIREN BATERA	→	↓		BERAK ----- SUGE MOTA	↓	NAFARROAKO HERRIA ----- ARNAS EZAK HIL	↓	TENPERA- TURA	→	AZKEN BOKALA ----- MUSIKA ESTILO	→	URANIOA ----- ERDI HITZ ELKARKETAN	→
↓				↓		↓		BAHI, BERME ----- LEKU ATZIZKIA	→	↓		↓	
KRISTO ONDOREN ----- APUR BATEAN	→		* LELOA ----- TONA	→				↓					
↓			↓							PIZTU ADITZAREN ERROA	→		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1		7	3	2	4	6		
3			7			5		2
		9	8		5			
9	4	5	6					1
		6		8	1			
		1			2	3		4
	6			9			3	
			2	4			5	
5		8		7	3		2	

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Olibondoaren fruitua.
2. Kalitatearen marka.
3. Ur korrante naturala.
4. Atzizki: behekoa.
5. Pozkorra, alegera.

EBAZPENAK

5X5:	1	5	7	3	2	4	6	9	8
1. OLIBA	3	8	4	7	6	9	5	1	2
2. LABEL	9	6	9	8	1	5	7	4	3
3. IBAIA	4	6	3	7	2	8	1	9	5
4. BEITI	8	7	1	9	5	2	3	6	4
5. ALAIA	4	6	2	5	8	1	3	7	9
ENAK	6	5	9	8	1	7	3	4	2

Z	L	I	p		N	V	O	K	A	J	I	Z
V	R	R	V	D	V	Z	T	O			K	
S	E	R	E		T	I	B	A	R	V	O	N
U		U	T		I		H		p	O	T	
E	V	E	N	E						Z	N	O
A	R		K							E	V	
V	E	V	A	J							V	O
I	p		U	R						V	I	
V	N	O	R	O	N	V	E	N	E	R	R	B
E	L	O	T	E	T	O	K	I	A	R		T
S	V		N	K		E		D	E	S	V	T
T		V	T		V		V		M		p	



Zeru zati txiki urdin bat

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 MIGUEL OSÉS

Baluarteko areto ilunaren erdian zeru zati txiki urdin bat ireki da. Bi aulki prest dira musikariei ongietorria egiteko. Ez dira ohiko orduak kontzertu baterako: larunbat eguerdia da, vermutaren ordua, eta oskarbi eta bero da kanpoan. Planak gehiago eskatzen du terraza bat, eguzkitako betaurrekoak eta trago freskoak, zutik dantza apur batekin edo. *Vermúsica* ekimenaren barruan Queralt Lahozek kontzertu akustikoen birari amaiera emanen dio Iruñean, bandako formatuari berrekin aurretik.

Dena urdin bilakatu zela kantatzen hasi zaigu, eta atrezzoko zerua bizi-bizi argitu da. Hip-hop eta musika urbanoetatik edaten duen arren, formatu honetan bere jatorri flamenkoek dir-dir egiten dute. Bitxia da, hala ere, baina erraz egin du eta erraz sartu dira kanta bat bestearen atzetik. Ahotsa eta gitarra. Jantzi gorri-oholtzako bi musikariak, kasik ilunpetan, kontra-argiekin, itzalekin jolasean.

Iraganeko amodioei, amonari eta, batez ere, norberaren maitasunari kantu egin die. Haria fin batek gela osoa betetzen du punteatutako akordeen konpainiaz. Gertukoa ematen du, naturala, egiten duen hori bizi duen horietakoa, hauskorra. Kontatu digu nola eman dituen ordu gehiago Kolonbiako jaialdi baterako joan-etorrian, herrialdean baino. Leher eginda dagoela aitortu digu, aire girotuaren albo kaltearen eta goizeko ahotsak traizionatuko zuen beldurrez. Atzealdeko zeru zatia txiki geratu zaio itsasoz bestaldetik zerua zeharkatu ostean.

Eta bat-batean, hautsi egin da. Tira, hasieratik igarri diogu malkotxoa begiaren ertzean, emozioari ezin eutsita. Formatu honekin gozatua hartu du, eta nabari zaio: "Nire kantei beste esanahi bat eman diet". Estimatzan da artista batek bere buruari taula gainean ere hala jokatzea baimentzen dionean. Eman lezake

postureo hutsa, baina hemen gaudenok senti dezakegu benetan ari dela, neketik eta asebetetzetik.

Artista guztiek dute *hit* bat, eta Queraltena *De la cueva a los olivos* da. Entzuleen artean ere gehien kantatu dugu horixe, eta aulkitik altxarazi dugu abeslaria bera ere, dantzara.

Zeruak, bitarte honetan guztian, eguneko orduaren arabera hartzen duen tonu guztiak imitatu ditu: horixka, laranjago, arrosakara, eta urdin bizi-biziak.

Amaierara heldu gara, eta bertsio batekin eman nahi dio akabera kontzertuari: migratu behar izan zuten senideekin akordatu da, eta, gaur egun ere, diskurtsoak gorrotoz eta errepresioz itotzen dituztenei aurre egiteko eskaini die Auterren *Al Alba*. Ilunabarra. Kontzertua bikaina izan da ordura arte, baina hor kraska egin digu zerbaitek barruan, eta malkotxoa guri erori zaigu. ●

QUERALT LAHOZ

NOIZ: Maiatzaren 11n

NON: Baluartean (Iruñea)



LIBURUA

Oskolak malgutzeko liburua



BARRASKILOEK BAINO BAT GEHIAGO

ANE LABAKA MAYOZ

EREIN, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Soinean daramate etxea barraskiloek, bizkar-zorro kiribildua bailitzan, bizitzeko beharrezko dituztenak hara eta hona garraiatuta. Etxeak, orde, kraskatu eta bitan bana daitezke. Bikoiztu ere egiten dira tarteka, behin-behinekoz bada ere gotorleku izatetik zama izatera igarota. Oskoldunei eskaini die Ane Labaka Mayozer (Lasarte-Oria, 1992) *Barraskiloek baino bat gehiago* (Erein, 2023) liburua. Besteak beste, eskola mila zatitan hautsi eta puskek berriro bat egin dezaten moduren bat asmatu nahian dabilzan horiei.

Hiru malkok plater gainean egiten duten zaratak eteten du gurasoak bananduko direnaren berria jaso osteko sukaldeko isiltasuna. Horixe da Sararen ikuspuntu eta ahotsetik kontatutako istorioaren abiapuntua. Hamar urteko neskatoa da Sara, eta gurasoen banantzeak dakarzkion aldaketa, dolu, galdera, ziurgabetasun, beldur, erru eta

bestelakoak dakarzkigu orriotan. Ertzugarikoa den gaiaren kontakizuna xeheki mamitu du lasartearrak, bereziki, bideak lakartzen dituen emozio luizari eta bideok berriro leuntzeko moduei erreparatuta.


Amarekin, aitarekin, lagun duen Lur-rekin eta beste pertsonaia batzuekin zein bere buruarekin izandako harreman eta elkarrizketek maitasuna zertan den argitzera ere badaramate protagonista minak zeharkatutako kontakizunean. Honekin, maitasunaren akaberatzat jo ohi dena begiratzeko beste ikuspuntu bat eskaintzen dio liburuak irakurleari, finean, horixe bera baita liburuan gailentzen dena: maitasuna, formaz aldatzen bada ere.

Atentzioa ematen du egileak eszenatokiak sortu eta horiek zein, oro har, baliatutako hizkuntza eta iruditegiak haurren ikuspuntura egokitzerakoan duen doitasunak. Horren adibide dira

dagoeneko aipaturiko sukaldekoa, zeinetan protagonistak dioskun triku bat jaio zaiola eztarriko zuloan, jolas garaian ikaskideekin izandako ika-mika eta ber-radiskidetzeak islatzen dituztenak, hasieran arrotz zaiona kamamila eskutan Sarari "etxeago" bilakatzen zaionekoa zein psikologoarenean hareaz beteriko kutxa baten parean dagoenekoa.

Gaia jendartean hautemateko era berriak eskaintzen ditu Labakak orriotan, besteak beste, "orde" atzizkia hausnarketa gai izanda zein eskolan eginarazten diren zuhaitz genealogikoak jopuntuan jarrita. Halaber, familia ereduen aniztasuna erdigunera ekartzeko ere probesten ditu horiek eta bestetuek.

Besarkada modukoa da liburua oskolak hartutakoentzat: izan Sarak bizitakoaren gisakoak bizitzen ari diren gatzetxoentzat zein heldu izanagatik oskol haren zati puntazorrotzak barrunbeetan trabatuta ditugunontzat. ●



Erdi arepa, erdi marmitako

ALAI
YUCA

OSO POLITA, 2024



XALBA RAMIREZ

Zenbat gauza pasatzen zaizkigun oharkabeen. Nitxoetan mugituta ere, nitxo bakoitza handiegia ez ote da dagoeneko? Tolosatik dator Alai artistaren EP hau, breakbeat, jungle, UK garage eta house estiloko elektronika perfektionista, zapore afrokaribearra-ekin lurrindua.

Eta aurkikuntza zela uste nuena, ba tira, ni ere berandu. *Ozen* lan luzea kaleratua zuen aurretik, Cris Lizarragaren *Quitame la culpa* liburutik abiatutako disko indartsua. *Yuca* laburragoa da, baina itxuraz behintzat, landuagoa. Ez dago ezer sobera –akaso, kanturen bat faltan–, perkusio, bateria eta atmosfera hiperzainduak, hiperfinak. Zaila da breakbeateran erritmo frenetiko eta apurtua minimalismoarekin lotzea, baina *Yucak* ezin hobeto egiten duela-koan nago.

Honela aurkezten du bere burua Alai: erdi arepa, erdi marmitako. Eta hor dago bere berezitasunetako bat. Bere sustrai venezuelarrak islatzen saiatu da diskoan, eta Xabier Leterekin batera, topatuko ditugu Latinoamerika-



ko erritmo eta sample sorta batzuk. Ordea, laginak laburregiak dira benetako fusio batez hitz egiteko, paleta kolore batez baino gehiago.

Musika elektronikoa rocka baino zaharragoa da Euskal Herrian. Ordea, tradizioa eta eskola orain ari dira apur bat gehiago garatzen. Orain arte beti izan dut sentsazioa nazioartearekin konparatuta, kopia eskasak besterik ez ditugula egiten hemen. Baina ari dira,

ari dira izen propio indartsuak sortzen. Tolosatik datorren Mattin Zeberio aipatu nuen aurreko batean, eta Tolosatik Alai Ormazabal etorkizuneko izen indartsua izango dela, zalantza gutxi.

Oraindik, ordea, hizkuntza propio bat garatzea falta zaigu. Izango al da UK house gisa ezagutzen den estiloaren parekide euskaldunik? Sortuko al dugu beat endemikorik? Tiroa doitzea besterik ez zaigu falta. ●

Moja faxisten istorio harrigarria

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Zin dagit hurrengo hauteskundeetan medio guztiek derrigorrezko moja boto-emaileen argazkia publikatzen dutenean –publikatuko baitute; ekainaren 9an izango da, portzierto: norbait despistatuta balebil hemen uzten dut abisua, ez zaituztet-eta oso apasionatuta sumatzen kontuarekin, baina gogoratu, Eurovisionen baino gauza inportanteagoak erabakiko dira Europako hauteskundeetan–, diot, berriz ere prentsa digitalean botomojen fotomoja agertzen denean, ez dudala segurutzat joko azkonar itxurako izaki horiek PPren bezero elektoralak direnik, nahiz eta bizi osoan horixe izan den pentsatu dudana.

Aiaraldea.eus hedabideak joan den astean eman digun titular lorios batek aldatu dit pertzepzioa. Honela zioen: “Moja klaratarrek Eliza utzi dute, Urduñako komentua erostea eragotzi die telako, eta eskuin muturreko sekta batera batu dira”. Ea, haaatu annassa, hemen gauza asko daude komentatzeko-eta.

Hasteko, titularra. Narrazio klasiko baten elementu guztiak biltzen dituen

artelan gisa baloratu dezazuela eskatzen dizuet. Hor daukazue hasierako planteamendua, zeinean pertsonaiak aurkezten zaizkigun eta istorioaren ekintza abiatzen den –moja klaratarrak dira protagonistak eta epopeia abiarazten duen lehen ekintza da Eliza utzi dutela–. Gero korapiloa dator: hor bestelako gertakariak azaltzen zaizkigu; eta gainera, hasierako ekintza erreferentzia gisa hartuz gero, *flash-back* baten aurrean gaude, Eliza utzi aurretik gertatu den zerbaiten berri baitaukagu. Trama konplexuago bihurtzen du horrek, noski –norbaitek eragotzi die Urduñako komentua erostea, baina nork? Oh, suspentsea–. Azkenik, korapiloa askatzen duen azken ekintza dramatikoak dator, istorioa ixten duena, erremateko tiroa, espero gabeko *plot twist* bat, irakurlearen burmuina uzten duena perretxiko dibertigarrien konpainian pasatako asteburu baten ondoren bezala –alegia, eskuin muturreko sekta batean bukatu dutela pinguinoz mozorrotzea maite duten andre ho-

riek, nahiz eta itxuraz behintzat, bizitza pasatzen duten errezatzen eta txokolatezko postreak prestatzen, jende kaltegabea balira bezala–.

Ni behintzat, Kataluniako independentziaren memea bezala geratu nintzen euskal mikroipuinen obra goren hori irakurrita: mojek eliza utzi dutela jakiten duzu lehenbizi –“Bazen garaia! Askatasuna! Matxinada! Apostasia! Akelarrea!”–, gero txabola katoliko baten salerosketaren txama –“Hum, hemen bazegok interesen bat”–, eta bukaeran *coitus interruptus* erabatekoa –zentzu metaforikoan betiere, mojek ari baikara eta, Dominiquek, ofizialki behintzat, ez du *-nique -niquerik* egiten–. Esperantzatik terrorera egindako bidaia horren ondoren, klaratarrak fitxatu dituen Pia Unio Sancti Pauli Apostoli hori zer den gainbegiratzten hastean, agertzen da mundu bat oso aberatsa –edo aberats nahia behintzat: etengabeak dira donazioak jasotzeko deiak–, konstatazio bat egitera garamatzana: asuntu katolikoa eskuindarrago bilakatzeak ezinezkoa dirudienean, beti agertzen da baten bat esanez: “Ezet? Eutsi nire kopoiari”. Ez, sartu diren lekuan sartuta, moja klaratar horiek ez diote botoa PPri emango. Falange ere komunistegia irudituko zaie, nik uste.

Azken urteetan eskuin muturra ekoizten ari den produktu ugarien artean, dena den, fedearen ulerkera frikifatxa hauek harritzen naute gutxien. Apaiz batzuk aspalditik daude konturatuta merkatu-nitxo hippyak alde batera utzi eta Borgoinako gurutzekin dabilatzanei hitz egin behar dietela, mezetako publikoak daukan adinaren batez bestekoa 98 urtetik beherakoa izatea nahi badute. Horregatik, susmoa dut hau ez dela izango elizan entzungo dugun azken tiroa. ●



Bi astelehenean behin ARGIA
eta plataforma guztietan

Estetikaz

Ane Berriotxoarekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



Maiatzak 27, astelehena, 20:00etan **argia.eus**-en

ZIBURUKO 5. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 1 EAN

10:00-19:00 HERRIKO PLAZAN

EGITARAUA

- 10:00 **IREKITZE EKITALDIA** eta Daniel Landarti omenaldia.
- 10:10 **ZUBIBURU** Daniel Landart eta Arantxa Hirigoien mintzo.
- 11:00 **KIRIBIL ITURRI ZAHARREAN** 11:00 **KONTZERTUA**
Haurrentzako ipuin kontaketa **PELAX** (Balio dute)
- 11:30 **KOMIKI AURKEZPENJA**
"IRRITAIA" "Mattin" Martiarena (Zortziko)
- 12:00 **LIBURU AURKEZPENJA**
"ETXE BAT NORBERARENA"
Yolanda Arrieta (Alberdania)
- 12:30 **ZIRRIBORROKA** (Bertso-marrazki dema)
"Mattin" eta Amane Apalategi VS. Maddi Ane Txoperena
eta Maddi Sarasua
- 13:00-15:00 **AZOKA HETSIA**
- 15:00 **KONTZERTUA "BLOÑ"** (Xofaldia)

- 15:30 **UMORE SAIOA** "Txiki" "40 urte eta maldan behera niek"
- 15:30 **TAILERRA HERRIKO ETXEAN**
"Haiku" idatz tailerra" 7-99 urte
(Etxepare Lizeoko 1. Pro-ko ikasleek)
- 16:00 **LIBURU AURKEZPENJA**
"MIKROIPUINAK" Idoia Torregarai eta Zaldieroa (Elkar)
- 16:30 **KONTZERTUA "HEGAZKIN"** (Mukuru)
- 17:00 **LIBURU AURKEZPENJA**
"RIFQA" Mohammed El-Kurd (Katakarak)
Eider Behobide itzultzailearekin
- 17:30 **LIBURU AURKEZPENJA**
"MANTTALINGO ALABA" Mikel Etxaburu (Pamiela)
- 18:00 **LIBURU AURKEZPENJA**
"MESFIDA ZAITEZ" Bea Salaberri (Elkar)
- 18:30 **KONTZERTUA "LUMI"** (Usopop)
- 19:00 **AZOKAREN HESTEAK**

ANTOLATZAILEAK:



PARTAIDEAK:

